

I. XEDAPEN OROKORRAK

ESTATUKO BURUZAGITZA

10923 3/2020 Legea, irailaren 18koa, Justizia Administrazioaren esparruan COVID-19ari aurre egiteko neurri prozesalena eta antolaketa-neurriena.

FELIPE VI.a

ESPAINIAKO ERREGEA

Honako hau ikusten eta ulertzen duten guztiei.

Jakizue: Gorte Nagusiek honako lege hau onetsi dutela eta nik berretsi egiten dudala:

HITZAURREA

I

Ministro Kontseiluak 463/2020 Errege Dekretua eman zuen 2020ko martxoaren 14an, eta haren bidez alarma-egoera deklaratu zuen COVID-19ak eragindako osasun-krisialdia kudeatzeko; besteak beste, pertsonen zirkulaziorako askatasunari muga jartzeko neurriak jasotzen zituen, horrek herritarrentzat, langileentzat eta enpresentzat dituen ondorioekin. Zehazki, Justizia Administrazioaren eremuan epemugak eta epeak etetea xedatzen zuen, Konstituzioaren 24. artikuluan pertsona guztiei aitortutako eskubideak bermatzeko mantendu behar direnean izan ezik.

Neurri horiek direla-eta egon zitezkeen ondorioei aurre egiteko, Justizia Administrazioak egokitzapenak egin behar izan zituen, bai erakunde prozesaletan beharrezko ziren arauen aldaketei begira, bai antolamenduari begira; egokitzapen horien helburua zen epaitegiek eta auzitegiek ohiko funtzionamendua era progresiboan berreskura zezaten.

Izan ere, Justizia Administrazioan moteltze nabarmena gertatu zen COVID-19ak ekarri duen krisialdiaren ondorioz; horregatik, beharrezkoa izan zen apirilaren 28ko 16/2020 Errege Lege Dekretua —Justizia Administrazioaren esparruan COVID-19ari aurre egiteko neurri prozesalena eta antolaketa-neurriena— onestea, zeinak helburu izan baitzuen, besteak beste, ahalik eta azkarren irtenbidea ematea alarma-egoera deklaratzearekin batera etenda geratu zirelako metatu ziren prozedurei, alarma-egoera bertan behera gelditzen zen momentutik bertatik.

Era berean, neurriak hartu ziren auzi gehiago egongo zela aurreikusi baitzen, hartutako aparteko neurriak eta osasun-krisialdiaren ondoriozko koiuntura ekonomikoa bera dela-eta.

Zuzenbideko estatu sozial eta demokratikoan bizi gara, eta krisialdiaren ondorioetatik ateratzeko prozesuaren parte izan behar dira herritar guztiak. Gaur egungo osasun-egoerak inpaktu globala du eta kolektibo sozial askorentzat ondorio negatiboak ekarriko ditu; ondorio sozial eta ekonomikoek era larriagoan eragingo dituzte kolektibo kalteberak.

Behin alarma-egoera pasatu dela, Justizia Administrazioa normaltasun berrira egokitu behar da hurrengo hilabeteetan, eta horretarako kontuan hartu beharko ditu, batetik, babes judizial eraginkorrerako eskubideari dagokionez herritarrek justizia-zerbitzuaren erabiltzaile gisa dituzten eskubide eta beharrak; eta bestetik, osasunerako eskubidea bermatu behar die, bai herritarrei, bai justiziaren arloko langile eta profesionalei. Horrekin batera, eta aurreikusitako auzien gorakadari dagokionez, Justizia Administrazioak hari erantzuna emateko prestatzeaz gain, susperraldi ekonomikoaren prozesuan faktore erabakigarria izateko ere prestatu egin behar da.

Horregatik, ukitutako sektore guztiekin baterako elkarrizketa burutu eta adostasun parlamentario zabalak lortzeko ahaleginak egin dira, eta lege honek hobekuntza garrantzitsuak egiten dizkio 16/2020 Errege Lege Dekretuari; besteak beste, errege lege-dekretu hartan hartutako neurriak egokitzen ditu, eta, kasu batzuetan, haiek aplikatzeko

epeak zabaltzen ditu, bai eta alderdi batzuk gehitu ere. Gehikuntza horien adibide da Ediktu Judizialen Taula Bakarra martxan jartzea ebazpenak eta komunikazioak argitaratu eta kontsultatzeko, legeak hala xedatzen duenean.

Era berean, normaltasun berri hau gainditu eta COVID-19aren aurkako neurri eraginkorrak izan arte, ezinbestekoa da antolamendu- eta teknologia-neurriak hartzen jarraitzea, arrisku egoerak ekiditeko beharrezkoak baitira. Justizia Administrazioa, administrazio horren zerbitzura ari diren langileak, profesionalak eta herritarrok azkar egokitu gara eskura dauden tresna teknologikoetara; izan ere, pandemia garaian nabarmen handitu da horien hornidura, bai eta haien erabilera optimizatu ere. Osasun-krisialdiak ikusarazi digu beharrezkoa dela gure justizia errealitate digitalera egokitzea, zerbitzu publikoarekiko hurbiltasuna, arintasuna eta iraunkortasuna ahalbidetzen duen baliabide baita, baina ez horregatik bakarrik, osasuna babesteko baliabide ere delako.

Hori dela-eta lege honek antolakuntza-neurriak jasotzen ditu, segurtasun-distantzia bermatzeko ikustaldi eta entzunaldi publikoetan; hala ere, kasu batzuetan, epaitegian bertan egotea ezinbestekoa izango da, adibidez, zigor-arloan, ikertuaren edo akusatua kasuan edo auzitegi-medikuen miaketan kasuan. Era berean, teknologia berriak txertatzeko neurriak sustatzen ditu, bai jarduketa prozesalean, bai, oro har, herritarrek Justizia Administrazioarekin dituzten hartu-emanetan txertatzeko, horrela eginez gero, egoitza judizialean jende pilaketak izan daitezen saihestuko da, ahal den neurrian.

II

Lege hau honela dago egituratuta: hiru kapitulu ditu, guztira hogeita hiru artikulua jasotzen dituztenak; zazpi xedapen gehigarri; bi xedapen iragankor; xedapen indargabetzaile bat, eta hamahiru azken xedapen.

Lehenengo kapituluak neurri prozesalak arautzen ditu prozedura batzuen lehentasunezko izapidetzea ezartzeko; hain zuzen, COVID-19aren osasun-krisialdiaren ondorio zuzena diren edo krisiaren ondorioek zuzenean eragin dituen lanaren, zibilaren eta administrazioarekiko auzien arloetako prozedurak. Horien artean nabarmendu behar dira: gatazka kolektiboaren prozesu-modalitatearen bidezko izapidetzea, presakoa baita, eta enplegu-erregulazioko espedienteak aurkaratzeko prozeduren lehentasunezko izapidetzea. Martxoaren 17ko 8/2020 Errege Lege Dekretuaren 23. artikulua jasotzen ditu aldi baterako enplegu-erregulaziorako neurri bereziak.

Bigarren kapituluak konkurtsoaren eta sozietateen eremuko neurriak jasotzen dira. COVID-19aren osasun-krisialdia oztopo gehigarria izan da konkurtsoan dauden enpresen bideragarritasunerako; izan ere, krisialdia dela-eta hitzarmena sinatzeko edo betetzeko ezintasuna gerta daiteke enpresak likidaziora bultzatuz, edo bideragarri izan zitekeen ekoizpen unitatearen besterentzeko zailtasuna areagotu daiteke. Horregatik, martxoaren 31ko 11/2020 Errege Lege Dekretuak enpresa horiek ere aldi baterako enplegu-erregulazioko espedienteetara sartzeko aukera zutela jaso zuen, martxoaren 17ko 8/2020 Errege Lege Dekretuak xedatutakoarekin bat. Martxoaren 31ko 11/2020 Errege Lege Dekretuaren bidez, gizarte- eta ekonomia-arloan presako neurri osagarriak ezartzen dira COVID-19ari aurre egiteko; martxoaren 17ko 8/2020 Errege Lege Dekretuaren bidez, berriz, COVID-19aren eragin ekonomiko eta sozialari aurre egiteko presako eta ezohiko neurriak ezartzen dira.

Martxoaren 31ko errege lege-dekretu hartan hartutako neurriek beste batzuk gehitzen zaizkie lege honetan, eta helburu hirukoitza dute. Lehenengo eta behin enpresek, profesionalak eta autonomoek jarduerarekin jarrai dezaten lortu nahi da; hain zuzen, alarma-egoera indarrean jarri aurretik hitzarmen baten, judizios kanpoko ordainketa-akordio baten edo birfinantzatzeko akordio homologatu baten ondoriozko betebeharrak erregularriki betetzen zituzten enpresek, profesionalak eta autonomoek. Zordun horiek dagokienez, likidatzeko fasea irekitzea eskatzeko betebeharra geroratzen da; zordunak hitzarmenaren indarraldian zehar dakienean hitzartutako ordainketei eta hura onartu eta gero hartutako betebeharrak ezin izango diela aurre egin aurkeztu behar duen eskabidea da hori. Halaber, hitzarmenaren, judizios kanpoko ordainketa-akordioaren edo birfinantzatzeko akordio homologatuaren aldaketa errazten da. Birfinantzatzeko akordio

homologatuei dagokienez, eskaera berria aurkeztu ahalko da nahiz eta aurreko eskaera aurkeztu zenetik urtebeteko epea pasatua ez izan.

Bigarrenez, enpresen finantzaketa indartu eta sustatu behar da likideziarekin dituzten behar iragankorrei aurre egin ahal diezaieten. Halaber, likidazioa egin behar izatekotan, masaren kontrako kreditu gisa sailkatuko dira finantzatzeko konpromisoen ondoriozko edo hirugarrenen kargurako bermea ematearen ondoriozko kredituak; hirugarren horien artean sartuko dira konkurtso pean dagoenarekin harreman estua dutenak, zeinak hitzarmen proposamenean edo epaileak, jada, onartutako aldaketa-proposamenean agertuko baitira. Ildo horretatik, kreditua eta enpresaren likidezia errazteko xedez, kreditu arrunt gisa sailkatzen dira alarma-egoera deklaratu ondorengo bi urteetan deklaratu diren konkurtsoetan zordunarekin bereziki lotuta dauden pertsonen emandakoak.

Merkataritza arloko eta Lehen Auzialdiko epaitegietan hartzekodunen konkurtsoen izapidetzearekin loturiko auzien kopuruak gora egingo duela aurreikusten da eta, hori ekiditeko, konkurtso-prozesua arintzeko zenbait arau ezartzen da, besteak beste: ikustaldiak egiteko beharra ez egotea; kaudimengabezia aitortzea; langileen eskubideak babestera, enpresaren jarraipena ziurtatzera eta ondasun eta eskubideen balioa kontserbatzera bideratutako zenbait jarduketa lehentasunez izapidetzea, eta zenbait egintza eta intzidente (enkanteak, inbentarioen eta hartzekodunen zerrenden aurkaratzea edo likidatzeko planen onespena) sinplifikatzea.

Bukatzeko, II. kapitulu horren barruan, bi arau ezartzen dira, kapitaleko sozietateak desegiteari eta konkurtsoa deklaratzeari buruzko arau orokorrak egungo egoeran aplikatzeko izango lituzkeen ondorioak aldi baterako eta salbuespenez arintzeko xedez; horiei esker enpresek denbora gehiago izango dute beraien zorra berregituratzeko, likidezia lortzeko eta galerak konpentsatzeko, bai ohiko jarduera berreskuratzen dutelako, bai kreditua edo laguntza publikoak eskuratzen dituztelako. Hartara, hartzekodunen konkurtsoa deklaratzeko eskaera egiteko betebeharraren etetea luzatzen da 2020ko abenduaren 31ra arte eta aurreikusten da ezen galeren ondorioz desegiteko legezko arrazoiaren ondoretarako ekitaldi honi dagozkionak ez daitezela zenbatu.

Aurrekoarekin loturik, xedapen indargabetzaileak COVID-19aren eragin ekonomiko eta sozialari aurre egiteko presako eta ezohiko neurrien martxoaren 17ko 8/2020 Errege Lege Dekretuaren 43. artikulua indargabetzen du; artikulua horrek xedatzen zuen alarma-egoera indarrean zegoen bitartean konkurtsoa deklaratzeko eginbeharra etenda geratzen zela eta aurreikusten zuen epaileek nahitaezko konkurtso-eskaerak ezingo zituztela izapidetzeko onartu egoera hori amaitu eta bi hilabete pasa arte.

Azken finean, konkurtsoak deklaratu edo likidatzeko faseak ireki daitezkeen ekidin nahi da merkaturako baldintza orokorretan bideragarriak izan daitezkeen enpresei dagokienez (adibidez, funtzionatzeak balio handiagoa izaten badu likidatzeak baino), fase horiek irekitzeak produkzio-ehunaren eta lanpostuen suntsitzea ekarriko lukeelako.

Hirugarren kapituluak antolakuntza- eta teknologia-neurriak arautzen ditu, krisialdiak Justizia Administrazioan izan dituen eta, jada, adierazi diren ondorioei aurre egitera bideratuak, bai eta neurri horien aplikazioa 2021eko ekainaren 20ra arte luzatzera ere, betiere ordurako COVID-19tik babesteko osasun-berme guztiak izango direla sinetsita.

Horrela, bada, ezartzen da ezen egintza prozesaleko parte-hartzaileek, ahal dela, telematikoki parte hartuko dutela egintza haietan, pertsonen osasuna babesten dela bermatzeko eta kutsatzeko arriskua txikitzeko, eta prozesuko alderdi guztien eskubideak zaintzeko. Hala ere, zigor-arloko jurisdikzio-ordenean, epaiketak telematikoki egiteko lehentasuna salbuetsiko da delitu astunen kasuan edo salaketa dela-eta behin-behineko espetxeratzea edo bi urte baino gehiagoko espetxe zigorra eskatzen den kasuetan; izan ere, kasu horietan akusatua bertan egotea beharrezkoa da.

Era berean, eta xede berarekin, ahozko jarduketetara sartu ahalko den pertsona kopurua murriztuko da entzunaldietarako gelen ezaugarriak aintzat hartuta. Horrela eginez, egoitza judizialean segurtasun-tarteak gordetzea ahalbidetzen da eta aglomerazioak eta ezinbestekoa ez den jendearen joan-etorria ekiditen da.

Xede berarekin, bideokonferentziaz, telefono bidez edo horretarako gaitutako posta elektronikoki bidez jendeari arreta emateko sistema ezartzen da. Hartara, aurrez aurreko

arreta murrizten da behar-beharrezkoa den kasuetara; gainera, horrelakoetan, aurretik ordua eskatu egin behar da.

Bulego judizial eta fiskalen jarduera arrunta berreskuratu ahal izateko, atzerapenik gabe ekin behar izan zitzaion jardunari murrizketa nagusiak bertan behera gelditu ondoren, eta auzien gorakadaren inpaktua ahalik eta txikiena izan zedin lagunduko zuten neurriak ezarri.

Gauzak horrela, COVID-19ren ondoriozko gaiez arduratuko diren unitate judizialak sortzea aurreikusten da, eta, besteak beste, ezartzen da ezen Justizia Administrazioa letradunek ordeztzeko edo zerbitzuan laguntzeko zereginak bete ahalko dituztela praktikaldian dauden bitartean. Horrekin guztiarekin, epaitegien eta auzitegien egoera erregularizatzeko dagoen premiari erantzuna eman nahi zaio benetako babes judizialerako eskubidea atzerapen bidegaberik gabe gauzatzearren.

Gainera, helburu hori bateragarri izan behar da Justizia Administrazioan lanean ari diren langileen, gainerako profesionalen eta egoitza horietara gerturatzeko diren partikularren osasuna babestearekin. Horregatik, zerbitzua emango den denbora banatzeko neurriak behar dira bulego judizialerako langileek beraien ohiko ordutegia jarraian bete ahal izan dezaten. Xede horrekin, goizeko eta arratsaldeko lanaldiak ezartzen dira langile guztiak aldi berean egon daitezen ekiditeko. Justizia Administrazioa langileek ordutegi horiek betez gero lanaldia handitu behar izan gabe, epaiketak eta entzunaldiak goizean eta arratsaldean egin daitezen ahalbidetzen da.

Azken xedapenetako laugarrenak Justizia Administrazioaren informazioaren eta komunikazioaren teknologiak arautzeko uztailaren 5eko 18/2011 Legea aldatzen du prozesuen kudeaketarako erabiltzen diren aplikazioetarako urruneko irispidea errazteko —teletelana sustatzen da horrela—, eta identifikatzeko eta izenpetzeko sistema aitortua ere aldatzen du; azken bi horiek bereizten ditu Administrazio Publikoaren Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legeak xedatu bezala.

Zehazki, prozesuak kudeatzeko aplikazioetan sartzea ahalbidetzen duen urruneko irispidea errazteko eta herritarrek Justizia Administrazioaren zerbitzu elektronikoetarako irispidea izan dezaten ahalbidetzeko, organo, bulego judizial eta fiskaltza guztiak baliabide eta tresna elektronikoz, bai eta beharrezko eta nahiko diren informazio-sistemaz ere, hornitu beharko dira eginkizuna era efizientean garatzeko. Aldi berean, ebazpenen eta komunikazioen argitalpena bateratzen da Ediktu Judizialen Taula Bakarrean, Estatu Aldizkari Ofizialeko Estatu Agentziak argitaratuko baitu elektronikoki; iragarki-taulen eta aldizkari ofizial desberdinetan argitaratuta sortzen zen sakabanatzearekin amaitzen da horrela, gainera izapidetze hori sinplifikatzen da eta alderdiekiko bermeak indartzen dira.

Azken xedapenetako bosgarrenak, berriz, Erregistro Zibilaren uztailaren 21eko 20/2011 Legearen vacatio legis aldatu eta 2021eko apirilaren 30era arte zabaltzen du. Momentu honetan ezin zaie ekin beharrezko diren antolamendu- eta funtzionamendu-aldaketei hain denbora laburrean, izan ere, egungo koiunturak eta Erregistro Zibilaren jarduera berreskuratzeko lanetan ahaleginak metatu beharrak ezinezko egiten dute; horregatik, era egokian eta bete-betean indarrean jarriko dela bermatu nahi izanez gero, aldaketa egiteko denbora zabaldu egin behar da. Dena den, Erregistro Zibilaren bulego kontsularren kasuan 2020ko urriaren 1ean jarriko dela indarrean aurreikusten da, eta progresiboki aplikatuko da.

Azken xedapenetako zazpigarrenak hobekuntza tekniko bat egiten du Sektore Publikoko Kontratuaren azaroaren 8ko 9/2017 Legearen 159.4 artikulua aldatzeko; Ekonomiaren eta enpleguaren aldeko premiazko neurri osagarrien apirilaren 21eko 15/2020 Errege Lege Dekretuaren bidez onartu zen artikulua horren aldaketa.

Azken xedapenetako zortzigarrenak eta bederatzigarrenean, pentsio-planak eskuratzeko aukera ematen zaie norberaren konturako langileei edo autonomoei, baldin eta jarduera eten ez badute ere fakturazioan ehuneko 75eko jaitziera izan badute osasun-krisialdiaren ondorioz.

Aldaketa hori egiteko, egokitzapen puntual batzuk egiten dira martxoaren 31ko 11/2020 Errege Lege Dekretuaren hogeigarren xedapen gehigarriaren testuan: orain arte jardura uztearen kasua baino ez zen jasotzen, baina hemendik aurrera fakturazioan ehuneko

75eko jaitsiera izatearen kasua ere jasoko da. Fakturazioaren jaitsieraren definizioa bat etorriko da jarduera uzteagatiko aparteko prestazioari dagokionez martxoaren 17ko 8/2020 Errege Lege Dekretuaren 17. artikulua bere idazketa berrian —apirilaren 7ko 13/2020 Errege Lege Dekretuak emanda— esandakoarekin. Era berean, apirilaren 21eko 15/2020 Errege Lege Dekretuaren 23. artikulua aldatzen da pentsio-funtsen entitate kudeatzailearen aurrean egoera hori egiaztatzeko aurkeztu behar den justifikazioa zehazteko.

Azken gai horrekin loturik, aipatu behar da ezen fakturazioaren jaitsiera hori justifikatzeko, autonomoek jarduera uzteagatik aparteko prestazio publikoa eskatzen dutenean aurkeztu behar duten ziurtagiri bera —fakturazio bolumena jasotzen baitu— aurkeztu beharko dutela; eskabide hartan ere fakturazioaren ehuneko 75eko murrizketa jasotzen da. Horrela, langile autonomoek dokumentazio bera erabili ahalko dute fakturazioan jaitsiera izan dutela egiaztatzeko, bai prestazio publikoa eskatzen dutenean, bai pentsio-plana eskuratu nahi dutenean.

Errege lege-dekretu bi horietan arautzen diren pentsio planen eskuragarritasunarekin zerikusia duten gainerako alderdiek bere horretan irauten dute; hain zuzen, aurreikusitako diru-sarrera garbien galerarekin loturiko munta eta aldia —alarma-egoeraren aldia gehi beste hilabete bat—.

Era berean, pandemiaren ondorioak eta etxe askoren diru-sarreretan izaten ari den eragina aintzat hartuta, azken xedapenetako zortzigarrenak martxoaren 31ko 11/2020 Errege Lege Dekretuaren 4. eta 8. artikuluetan ezarritako epeak zabaltzen ditu ohiko etxebizitza alokairuan duten errentarietako errenta ordaintzeko aldi baterako eta salbuespenezko atzerapena eskatu ahal izan dezaten; errege lege-dekretu horren bidez, gizarte- eta ekonomia-arloan presako neurri osagarriak ezartzen dira COVID-19ari aurre egiteko. Halaber, 9. artikulua zenbait alderdi aldatzen dira finantzaketa-laguntza iragankorrak arinago izapidetu daitezzen eta kalteberatasun-egoeran dauden errentarietako lehenbailehen baliatu ahal izan ditzaten.

I. KAPITULUA

Neurri prozesalak

1. artikulua. *Aldi baterako enplegu-erregulazioko espedienteen aurkaratzea izapidetzea; hain zuzen ere, COVID-19aren eragin ekonomiko eta sozialari aurre egiteko presako eta ezohiko neurrien martxoaren 17ko 8/2020 Errege Lege Dekretuaren 23. artikulua jasotzen dituen espedienteen aurkaratzea.*

1. Gatazka kolektiboko prozesu gisa izapidetuko dira legitimazioa duten subjektuek —artikulu honetako 2. apartatuan adierazitakoek— aurkeztutako demandak, baldin eta martxoaren 17ko 8/2020 Errege Lege Dekretuaren 23. artikuluan aurreikusitako aplikatzearen ondorioz ezarri diren lanaldi-etetei eta -murrizketei buruzkoak badira eta neurri horiek bost langileri baino gehiagori eragiten badiete.

2. Lan Arloko Jurisdikzioa arautzen duen urriaren 10eko 36/2011 Legearen 154 artikuluaekin bat legitimazioa duten subjektuez gain, COVID-19aren ondoriozko efektuak arintzeko emandako lan-arloko arauetan aurreikusitako ordezkarien batzordeak ere legitimazioa izango du gatazka kolektiboaren prozedura sustatzeko, artikulu honek aipatzen dituen aldi baterako enplegu-erregulazioko espedientei dagokienez.

2. artikulua. *Zenbait prozedura lehentasunez izapidetzea.*

1. Lehentasunez izapidetuko dira, 2020ko abenduaren 31ra arte (egun hori barne), espediente eta prozedura hauek:

a) Borondatezko jurisdikzioko prozesu edo espedienteak, baldin eta Kode Zibilarren 158. artikulua jasotzen dituen neurriak hartzen badira.

b) Jurisdikzio-ordena zibilean: erakunde hartzekodunak ohiko etxebizitzaren eta jarduera ekonomikoari atxikitako higiezinaren hipoteketan jasota dagoen legezko luzamendua

ez onartzearen ondoriozko prozesuak; legez aurreikusitako luzamendua edo kontratuaren derrigorrezko luzapena ez aplikatzeagatik errentariek aurkez dezaketen edozein erreklamazioren ondoriozko prozesuak; zordunen konkurtso-prozedurak, baldin eta pertsona fisiko badira.

c) Administrazioarekiko auzien jurisdikzioan: administrazio publikoen egintzen eta ebazpenen kontra jartzen diren errekurtsoak; hain zuzen ere, COVID-19ak eragindako osasun-krisialdiaren efektu ekonomikoak arintzeko aurreikusi diren laguntza eta neurriak aplikatzeari uko egiten dioten egintza eta ebazpenak.

d) Lan-arloko jurisdikzio-ordenean, presakoak eta lehentasunezkoak izango dira prozesu hauek: kaleratzeekin edo kontratua azkentzearekin loturikoak; martxoaren 29ko 10/2020 Errege Lege Dekretuak aurreikusten duen berreskuratzeko baimen ordainduan zehar bete ez diren lanorduak errekuiperatzeko eginbeharra eta forma deklaratzeko prozeduren ondoriozkoak (dekretu horren bidez, berreskuratzeko baimen ordaindu bat arautzen da besteren kontura diharduten eta funtsezko zerbitzuak ematen ez dituzten langileentzat, COVID-19aren kontrako borrokan biztanleriaren mugikortasuna murrizteko asmoz); martxoaren 17ko 8/2020 Errege Lege Dekretuaren 6. artikulua MECUIDA plana aplikatzearen ondoriozko prozedurak; 8/2020 Errege Lege Dekretuak 17. artikuluan jasotzen dituen eta jarduera uzteagatik ematen diren ezohiko prestazioen ukatzeak; banaka, taldeka edo ofizioz aldi baterako enplegu-erregulazioko espedienteak aurkaratzeko prozedurak, martxoaren 17ko 8/2020 Errege Lege Dekretuaren 22. eta 23. artikuluetan araututako arrazoietan oinarri duten espedienteak aurkaratzekoak; urruneko laneko modalitatea efektibo egiteko edo errege lege-dekretu horretako 5. artikuluan aurreikusitako lan-baldintzak egokitzeko bideratzen direnak; osasun-laguntzarako eskubidea aitortzeko eskabideak ukatzeko ebazpenak, hargatik eragotzi gabe administrazioarekiko auzietarako jurisdikzioaren eskumena erregelamendu bidez garatzea (eskumen hori jasotzen du Osasun Sistema Nazionalerako irispide unibertsalari buruzko uztailaren 27ko 7/2018 Errege Lege Dekretuaren bigarren xedapen iragankorrak); eta administrazio publikoetako funtzionarioen eta langile lan-kontratudunen baldintzei buruzko erreklamazioak.

2. Aurreko apartatuan xedatutakoak ez du eragotziko lege prozesalek lehentasuna aitortzea beste prozedura batzuei.

Hala ere, lan-arloko jurisdikzio-ordenean, premiazkoak izango dira ondore guztietarako eta lehentasunezkoak epaitegietan izapidetzen diren beste guztien aldean (oinarrizko eskubideak eta askatasun publikoak babestea helburu dutenen aldean izan ezik) honako hauek: banaka edo taldeka aldi baterako enplegu-erregulazioko espedienteak aurkaratzeko prozedurak, martxoaren 17ko 8/2020 Errege Lege Dekretuaren 22. eta 23. artikuluetan araututako arrazoietan oinarri duten espedienteak aurkaratzekoak; urruneko laneko modalitatea efektibo egiteko edo errege lege-dekretu horretako 5. artikuluan aurreikusitako lan-baldintzak egokitzeko bideratzen direnak; errege lege-dekretu horrek 17. artikuluan jasotzen dituen eta jarduera uzteagatik ematen diren ezohiko prestazioen ukatzea; osasun-laguntzarako eskubidea aitortzeko eskabideak ukatzeko ebazpenak, aurreko apartatuan xedatu bezala; eta martxoaren 17ko 8/2020 Errege Lege Dekretuaren 6. artikulua MECUIDA plana aplikatzearen ondoriozko prozedurak.

3. Erregistro Zibilaren arloan, lehentasunez izapidetuko dira: jaiotzen, ezkontzen eta heriotzen inskripzioak; ziurtagiriak ematea, bizi- eta egoera-ziurtagiriak barne; ezkontza-espedienteak; eta nazionalitatea lortzeko espedienteen zin-egiteko izapidea

II. KAPITULUA

Konkurtso- eta sozietate-neurriak

3. artikulua. *Konkurtso-hitzarmena aldatzea.*

1. Konkurtsopekoak betetzeko aldi dagoen hitzarmena aldatzeko proposamena aurkeztu ahal du 2021eko martxoaren 14ra arte, egun hori barne. Eskabidearekin batera, hauek aurkeztu beharko ditu: ordaintzeke dauden konkurtso-kredituen zerranda,

hitzarmena betetzeko aldi hartu baina ordaindu gabe daudenena, bideragarritasun plana eta ordaintzeko plana.

Jatorrizko hitzarmena onartzeko ezarri ziren arau berberak aintzat hartuta bideratuko da aldatzeko proposamena, baina idatziz izapidetuko da, edozein dela hartzekodunen kopurua. Aldatzeko proposamena onartzeko eska daitezkeen pasibo galdagarriaren gehiengoak jatorrizko hitzarmenaren proposamena onartzeko eskatu ziren berberak izango dira, aldaketaren edukia edozein dela ere. Aldaketak ez ditu eragingo jatorrizko hitzarmena betetzeko aldi hartutako edo hartutako kredituak, ez eta hitzarmenaren eraginkortasuna zabaldu zaizkien hartzekodun pribilegiatuak edo hura onartu eta gero atxiki direnak, salbu eta aldatzeko proposamenaren aldeko botoa eman badute edo aldatzeko proposamenari berariaz atxiki badira.

2. Epaileak hitzarmena ez dela bete deklaratzeko jaso dituen eskabideen berri emango dio konkurtsopekoari, hain zuzen, hartzekodunek 2020ko urriaren 31ra arte (egun hori barne) aurkeztutako eskabideen berri; baina, epe hori amaitu eta hiru hilabete pasa arte ez ditu izapidetzeko onartuko. Hiru hilabete horietan zehar, konkurtsopekoak hitzarmena aldatzeko proposamena aurkeztu ahalko du; aurkeztuz gero, ez-betetzea deklaratzeko eskabidearen aurretik izapidetuko da.

3. Arau horiek beraiek aplikatuko zaizkio ordaintzeko judizioz kanpoko akordioei.

4. artikulua. *Likidatzeko fasea irekitzea eskatzeko eginbeharraren geroratzea.*

1. 2021eko martxoaren 14ra arte (egun hori barne), zordunak ez du masa aktiboa likidatzeko eskatu beharko hitzarmena aldatzeko proposamena aurkeztu bada eta hura onartua bada epe horren barruan; eskabide hori aurkeztu behar izaten da zordunak dakienean ezin dituela dagozkion ordainketak egin edo ezin dituela bete konkurtso-hitzarmenean onartutako betebeharrak. Hitzarmena aldatzeko proposamena 3.1 artikuluan xedatutakoarekin bat izapidetuko da.

2. Aurreko apartatuan aurreikusitako epean zehar, epaileak ez du likidazio fasea irekitzeko autorik emango, nahiz eta hartzekodunak konkurtsoarean deklarazioa oinarritu dezaketen egintzak daudela egiaztatu.

3. 2020ko martxoaren 14tik aurrera kontatuta ondorengo bi urteen barruan onartutako edo aldatutako hitzarmena betetzen ez bada, masaren kontrako kredituak izango dira: diruzaintzako diru-sarreraren ondoriozkoak, hain zuzen, konkurtsopekoari mailegu, kreditu edo antzeko negozio gisa eman zaizkionak, edo haren alde edozein pertsonak eraturako berme pertsonalen edo errealean ondoriozkoak, harekin legearen arabera harreman estua duten pertsonen emandakoak barne; betiere, hitzarmenean edo aldaketan adierazita badago betebeharrekoaren nortasuna eta finantzatzeko emango den gehienezko zenbatekoa edo eraturiko den bermearena.

5. artikulua. *Birfinantzatzeko akordioak.*

1. Birfinantzatzeko akordioa homologatua duen zordunak indarrean dagoen akordioa aldatu ahalko du edo berri bat lortu 2021eko martxoaren 14ra arte (egun hori barne), nahiz eta aurreko homologaziotik urtebetea pasatua ez izan; Konkurtso Legearen Testu Bategina onartzen duen maiatzaren 5eko 1/2020 Legegintzako Errege Dekretuak 617. artikuluan xedatzen du urtebete pasa behar dela hitzarmen berria homologatu ahal izateko.

2. 2020ko urriaren 31ra arte (egun hori barne), epaitegiak zordunari helaraziko dizkio hartzekodunek birfinantzatzeko akordioa ez dela bete deklaratzeko aurkeztutako eskabideak, baina data horretatik kontatuta hilabetea pasa arte ez ditu izapidetzeko onartuko. Hilabete horretan zehar, zordunak konkurtsoa deklaratzeko eskumena duen epaitegiari jakinarazi ahalko dio indarrean den akordioa aldatzeko edo berri bat lortzeko hartzekodunekiko negoziazioak abiarazi dituela edo abiarazteko asmoa duela, nahiz eta homologatzeko aurreko eskabidea egin zuenetik urtebetea pasatua ez izan. Epaitegiari egindako jakinarazpenetik hiru hilabete pasa badira eta zordunak indarrean den akordioa aldatzeko akordioa edo akordio berri bat lortu ez badu, epaileak hartzekodunek aurkeztutako ez-betetzeak deklaratzeko eskabideak izapidetzea onartuko du.

6. artikulua. *Hartzekodunen konkurtsoa deklaratzeko eskabideen araubide berezia.*

1. 2020ko abenduaren 31ra arte (egun hori barne), kaudimengabeziaren egoeran dagoen zordunak ez du konkurtso-deklarazioa eskatu beharko, berdin dio epaitegi eskumendunari jakinarazi dion edo ez abiarazi dituela hartzekodunekiko akordioa — birfinantzatzeko edo ordaintzeko judizioz kanpoko akordioa— edo hitzarmenerako aurreko proposamenarekiko atxikipena lortzeko negoziazioak.

2. 2020ko abenduaren 31ra arte (egun hori barne), epaileek ez dituzte izapidetzeko onartuko 2020ko martxoaren 14tik aurkeztu diren nahitaezko konkurtsoen eskabideak. 2020ko abenduaren 31ra arte (egun hori barne), zordunak borondatzeko konkurtso-eskabidea aurkeztu badu, nahitaezko konkurtsoaren eskabidearen aurretik izapidetuko da, beste hori baino beranduago aurkeztua bada ere.

3. 2020ko abenduaren 31ra arte (egun hori barne), zordunak jakinarazi badu hartzekodunekiko negoziazioak abiarazi dituela birfinantzatzeko akordioa, ordaintzeko judizioz kanpoko akordioa edo hitzarmenaren hasierako proposamenarekiko atxikipena lortzeko, legeak ezarritako araudi orokorrari jarraituko zaio. Hala ere, kasua hori denean, zordunak ez du konkurtsoa eskatu beharko jakinarazpen hori egiten duenetik sei hilabete pasa arte.

7. artikulua. *Zordunarekin harreman estua duten pertsonen egindako finantzaketa eta ordainketak.*

1. 2022ko martxoaren 14ra arte (egun hori barne) deklaritzen diren hartzekodunen konkurtsoetan, kreditu arruntak izango dira, hargatik eragotzi gabe egokitu ahal zaizkien pribilegioak: diruzaintzako diru-sarreretatik eratorritakoak, hain zuzen, legearen arabera zordunarekin harreman estua duten pertsonen mailegu, kreditu edo antzeko negozio gisa zordunari emandakoak alarma-egoera deklaratu denetik.

2. Aurreko apartatuan xedatutako aldiak deklaritzen diren hartzekodunen konkurtsoetan, kreditu arruntak izango dira, hargatik eragotzi gabe egokitu ahal zaizkien pribilegioak: egoera hori deklaratu den unetik zordunaren kontura kreditu arruntan edo pribilegiatuen ordainketak egin dituztelako, legearen arabera zordunarekin harreman estua duten pertsonen subrogatu dituztenak.

8. artikulua. *Inbentarioa eta hartzekodunen zerrenda aurkaratzea.*

1. 2022ko martxoaren 14ra arte (egun hori barne), inbentarioaren eta hartzekodunen zerrenden aurkaratzeak ebazteko hasten diren gertakarietan ez da beharrezkoa izango ikustaldia gauzatzea, salbu eta konkurtsoko epaileak beste zerbait erabakitzen badu.

2. Demandatuetako edozeinek demandari erantzuten ez badio, amore-ematetzat joko da; zuzenbide publikoko hartzekodunen kasuan izan ezik.

3. Aurkaratzeko demanda intzidentalarekin eta aurkezten diren erantzunekin batera joan beharko dira, nahitaez, alderdiek baliatu nahi dituzten frogabideak.

9. artikulua. *Lehentasunez izapidetzea.*

2021eko martxoaren 14ra arte (egun hori barne), lehentasunez izapidetuko dira:

- a) Lan-arloko konkurtso-intzidentek.
- b) Ekoizpen unitateak besterentzera edo aktiboaren elementuak osotasunean saltzera bideratutako jarduketak.
- c) Hitzarmen proposamenak edo betetzeko aldiak daudenak aldatzekoak, bai eta hitzarmena epaiketa bidez onartzeari aurka egiteko intzidentek ere.
- d) Masa aktiboa leheneratzearen arloko konkurtso-intzidentek.
- e) Birfinantzatzeko akordioa homologatzeko eskabidea edo indarrean dagoenaren aldatetarena izapidetzea onartzea.
- f) Kautelazko neurriak eta, oro har, bestelakoak hartzea konkurtso-epailearen iritziz ondasunak eta eskubideak gordetzen eta kontserbatzen lagun badezakete.

g) Kaudimen gabezia egoeran dagoen pertsona fisikoaren konkurtso kontsektiboa, baldin eta masa aktiborik ez badu, ez eta ordainketa-plana —bitartekari batek bultzatuta— proposatzeko aukera ere. Ordainketa plan horretan jaso beharko litzateke hartzekodunen behin-behineko zerrenda, ezusteko kalifikazioa eta ordaindu gabeko pasiboa salbuesteko onuraren eskabidea, bai eta inolako aktiborik ez duela dioen zordunaren erantzukizunpeko adierazpena ere.

h) Ordaindu gabeko pasiboa salbuetsia izateko onura.

10. artikulua. *Masa aktiboa besterentzea.*

1. 2021eko martxoaren 14ra arte (egun hori barne) deklaritzen diren hartzekodunen konkurtsoen eta lege hau indarrean jartzen den egunean izapidetzen ari direnen kasuan, aktiboaren ondasunen eta eskubideen enkantea egin ahalko da: enkante judizialaren bidez edo judizioz kanpokoaren bidez, bai eta epaileak baimendu ahalko duen beste edozein moduren bidez ere, Konkurtso Legearen Testu Bategina onartzen duen maiatzaren 5eko 1/2020 Legegintzako Errege Dekretuak xedatutakoetako bat izan beharko baita. Lehentasunez, eta posible bada, enkantea telematikoki gauzatuko da.

2. Konkurtsoa edozein egoeratan dagoela, epaileak baimentzen badu pribilegio bereziari atxikitako ondasun eta eskubideak zuzenean diru bihurtzea, edo ondasunen ordain gisa edo ondasunak ordaintzeko ematea, baimenean esaten denari jarraitu beharko zaio.

11. artikulua. *Likidatzeko plana onartzea.*

Justizia Administrazioaren letraduak berehala erabakiko du konkurtso-administrazioak lege hau indarrean jartzen denerako, jada, aurkeztu dituen likidazio planak epaitegiko bulegoan ikusgai jartzea. Oharrak eta aldatzeko proposamenak egiteko legezko epea amaitutakoan, konkurtsoaren epaileari jakinaraziko dio eta hark autoa eman beharko du berehala; auto horretan, konkurtsoaren intereserako egoki iruditzen zaionarekin bat, likidazio plana onartuko du, beharrezko eta egoki jotzen dituen aldaketak barne.

12. artikulua. *Ordaintzeko judizioz kanpoko akordioaren, konkurtso kontsektiboa eta ordaindu gabeko pasiboa salbuetsia izateko onuraren izapidetzea arintzea.*

2021eko martxoaren 14ra arte (egun hori barne), zorduna ordaintzeko judizioz kanpoko akordioa lortzen saiatu dela ulertuko da, lortu ez arren, egiaztatzen bada konkurtso kontsektiboa abiarazteko izendatua izan den konkurtso-bitartekariak izendapenari bi aldiz uko egin diola epaitegiari jakinaraziz.

13. artikulua. *Galeren ondorioz desegiteko arrazoiaren aplikazioa etetea.*

1. 2020ko ekitaldian izan diren galerak ez dira aintzat hartuko Kapital Sozietateen Legearen Testu Bateginaren 363.1.e) artikulua jasotzen duen desegiteko arrazoa dagoen edo ez zehazteko ondore hutserako. Uztailaren 2ko 1/2010 Legegintzako Errege Dekretuaren bidez onartu zen testu bategin hori. 2021eko ekitaldiaren emaitzan ikusten bada ezen galerak direla-eta ondare garbia murrizten dela kapital sozialaren erdira, administratzaileek edo beste edozein bazkidek eskatu ahalko dute sozietatea desegiteko batzar nagusia egiteko, ekitaldia aipatu legearen 365. artikuluekin bat ixten denetik kontatuta bi hilabeteko epean, salbu eta kapitala neurri egokian gehitu edo murrizten bada.

2. Aurreko apartatuan xedatutakoa ulertuko da ezertan eragotzi gabe konkurtso-deklarazioaren eskabidea aurkezteko betebeharra, lege honetan xedatutakoarekin bat.

III. KAPITULUA

Antolamendu- eta teknologia-neurriak14. artikulua. *Egintza prozesalak baliabide telematikoen bidez egitea.*

1. 2021eko ekainaren 20ra arte (egun hori barne), epaitegiak edo auzitegiak haien egoitzetan eratu direnean, epaiketak, agerraldiak, deklarazioak, ikustaldiak eta, oro har, egintza prozesal guztiak telematikoki egingo dira lehentasunez epaitegiek, auzitegiek eta fiskaltzek horretarako behar diren baliabide teknikoak badituzte.

2. Aurreko apartatuan xedatutakoa gorabehera, zigor-arloko jurisdikzio-ordenean akusatua aurrez aurre egon beharko du epaiketari delitua astuna bada.

Era berean, ikertua edo akusatua aurrez aurre egon beharko da, berak edo haren defentsak eskatuta, Prozedura Zibilaren 505 artikuluan xedatutako aurretiazko entzunaldian, baldin eta akusazioetako edozein dela-eta behin-behineko espetxeratzea komeni bada edo, epaiketari kasuan, akusazioetako bat dela-eta bi urte baino gehiagoko espetxealdia eskatzen bada, salbu eta hori eragozten duten arrazoi justifikatuak edo ezinbesteko kasuak badaude.

Akusatua edo ikertua aurrez aurre egon behar dela xedatzen bada, haren abokatua ere aurrez aurre egon beharko da, abokatuak berak, edo akusatua edo ikertua eskatuta.

3. Auzitegi-tako kideen eztabaidak telematikoki egingo dira horretarako behar diren baliabide teknikoak badaude.

4. Fiskaltzetan egiten diren egintzetan ere aplikatuko da lehenengo apartatuan xedatutakoa.

5. Beharrezko diren neurriak hartuko dira baliabide telematikoak erabiltzean prozesuko alderdi guztien eskubideak bermatzen direla ziurtatzeko. Bereziki, eta edozein kasutan, bermatu egin behar da zigor-arloko prozeduretako akusatuek eta ikertuek duten defentsarako eskubidea, konkretuki, benetako legelari-laguntza izateko eskubidea, haien jarduna interpretatua eta itzulia izateko eskubidea, bai eta espediente judizialen informazioa eskuratzeko eta horietara iristeko eskubidea ere.

6. Agerpen telematikoaren bidez gauzatzen diren egintzen kasuan, egintza aztertzen ari den epaileak edo Justizia Administrazioako legelariak erabaki ahalko dute beharrezkoa dela agerraldira deitutako pertsonen bat edo gehiago, haien ustez, aurrez aurre egon behar dela.

15. artikulua. *Ikustaldi-aretoetara sartzea.*

Pertsonen osasuna bermatzeko xedez, 2021eko ekainaren 20ra arte (egun hori barne) ikusleak ahozko jarduketetan nola sartuko diren antolatuko du organo judizialak, ikustaldi-aretoen ezaugarriak aintzat hartuta. Nahikoa baliabide material dagoenean horrela egiteko, ikustaldiak irudiaren eta soinuaren zabalkunde telematikoko sistemen bidez zabaltzea adostu ahalko da.

16. artikulua. *Auzitegi-medikuen eta talde psikosozialen miaketak*

2021eko ekainaren 20ra arte (egun hori barne), auzitegi-medikuen txostenak egiteko nahikoa izango da eskura dauden mediku-agiriak erabiltzea; agiri horiek osasun-zentroei edo eragindako pertsonari eskatu ahalko zaizkie, eta telematikoki bidali beharko dituzte posiblea bada.

Berdin jardun ahalko dute adingabeen eta familiaren arloko lantalde psikosozialek eta emakumeen aurkako indarkeriaren balioespen integralko unitateek.

Ofizioz, alderdietako edozeinek edo mediku arduradunak eskatuta, epaileak miaketa aurrez aurre egin dadila erabaki ahalko du.

17. artikulua. *Togak ez erabiltzeko dispentsa.*

2021eko ekainaren 20ra arte (egun hori barne), ahozko jarduketetara agertzen diren alderdiek entzunaldi publikoetan toga ez erabiltzeko dispentsa izango dute.

18. artikulua. *Jendearentzako arreta.*

1. 2021eko ekainaren 20ra arte (egun hori barne), edozein egoitza judizialetan edo fiskaltzatan egiten den jendearentzako arreta bideokonferentziaz edo telefonoz bideratuko da, edo horretarako gaitu den posta elektronikoz, zeina Justizia Ministerioaren dagokion Lurralde Kudeatzaitzaren web-orrian argitaratu beharko baita, edo justiziaren arloko eskumena duten autonomia-erkidegoek zehazten duten organoaren web-orrian; jurisdikzio militarren eremuan, Defentsa Ministerioaren web-orrian egon beharko da argitaratuta, dagokion estekan. Hori horrela izango da eskatzen den informazioa zein den aintzat hartuta posiblea bada, eta Datu Pertsonalak Babesteko eta Eskubide Digitalak Bermatzeko abenduaren 5eko 3/2018 Lege Organikoak xedatutakoarekin bat.

2. Egoitza judizialera edo fiskaltzara ezinbestean joan behar izatekotan, herritarrek hitz ordua eskatu beharko dute aurretik administrazio eskudunek horretarako ezartzen dituzten protokoloak beteta; protokoloak ezartzeko orduan, guardiako epaitegietako eta emakumeen aurkako indarkeriaren arloko epaitegietako agerraldien berezitasunak aurreikusi beharko dituzte administrazio horiek.

19. artikulua. *COVID-19arekin loturiko organo judizialak.*

1. Mugape eta Antolaketa Judizialari buruzko abenduaren 28ko 38/1988 Legearekin bat, Justizia Ministerioak COVID-19arekin loturiko prozedurez eskusibitatez arduratuko diren organo judizial bihurtu ahalko ditu lege hau indarrean jartzean martxan hasteko zain dauden organo judizialak, Botere Judizialaren Kontseilu Nagusiak txostena eman eta eragindako autonomia-erkidegoari egin beharreko entzunaldia egin ondoren.

2. Justizia Ministerioa gaitzen da aurreratu ahal dezan 2020ko programazioan jasotzen diren organo judizialak martxan hasteko momentua Botere Judizialaren Kontseilu Nagusia entzun ondoren; horiek guztiak edo batzuk COVID-19arekin loturiko prozedurez arduratu ahalko dira eskusiboki.

20. artikulua. *Lehentasunez lurralde-atxikipeneko epaileak izendatzea.*

Justizia Auzitegi Nagusiko lehendakariak izendatu dituen lurralde-atxikipeneko epaileek beren zeregin jurisdikzionalak burutu ahalko dituzte lehentasunez COVID-19arekin loturiko prozedurez arduratzen diren organo judizialetan.

21. artikulua. *Destino-zentro beraren barruko jarduketak.*

1. 2021eko ekainaren 20ra arte (egun hori barne), probintziako idazkari koordinatzaileek Justizia Administrazioako letraduei eta administrazio horretarako lanean ari diren gainerako funtzionarioei, organo judizialei zuzeneko laguntza emateko unitate prozesaleetako edozeinetan lanean ari direnei, esleitu ahalko diete haien kidegoei dagozkien baina beste unitateren bati esleitutako zereginak burutzeko.

2. Dagozkion lanpostuen zerrendak onartuta ez dituzten barruti judizialetan, zereginak burutzea esleitu ahalko zaie kide bakarreko edo kide anitzeko edozein organon ari diren langileei, aurreko apartatuan xedatutako aldi berean.

3. Aurreko bi apartatuetan arautu den esleipena egiteko orduan, zeregina lehentasunez esleituko zaie haien borondatez horiek burutzea onartzen duten Justizia Administrazioako letraduei eta administrazio horretan lanean ari diren gainerako langileei, eta esleipenak ez du inoiz ekarriko ordainsarien aldaketa.

Esleitzeko erabaki hori arrazoituta ebazpenaren bidez hartuko da beti, zeinaren oinarria izango baita ezinbesteko neurria izatea zerbitzua behar bezala ematen dela bermatzeko.

Halaber, esleipen hori bakarrik egin ahalko da udalerrri berean dauden eta dena delako letraduak edo funtzionarioak bere lana egiten ohi duten orden jurisdikzional berekoak diren unitateen edo organoen artean.

22. artikulua. *Lanaldia.*

1. 2021eko ekainaren 20ra arte (egun hori barne), Justizia Administrazioako letraduentzat eta administrazio horretan lanean ari diren gainerako langileentzat goizeko eta arratsaldeko lanaldiak ezarri ahalko dira zerbitzu eta organo jurisdikzional guztietan; aurretik negoziazio kolektiboa gauzatu beharko da sindikatuekin, eta betiere, laneko segurtasun-neurriak eta lan-arriskuen prebentziokoak gorde.

2. Justizia Ministerioak eta justiziaren arloan eskumenak dituzten autonomia-erkidegoek lanaldien banaketa ezarriko dute eta ordutegiak finkatuko, Botere Judizialaren uztailaren 1eko 6/1985 Lege Organikoak xedatutakoarekin bat.

23. artikulua. *Justizia Administrazioan praktiketan ari diren letraduak ordezkapenak egiteko eta zerbitzua indartzeko baliatzea.*

1. 2021eko ekainaren 20ra arte (egun hori barne), ordezkapenak edo zerbitzua indartzeko zereginak eginez bete ahalko dira Justizia Administrazioako letraduen kidegoko hasierako ikastaroen irakaskuntza praktikoak, baldin eta zentroko zuzendariak horrela erabakitzen badu, betiere prestakuntzaren helburuak betetzen direla bermatuta, eta lehenetsuna izango dute ordezkari letraduen aurretik zeregin horietan aritzeko egiten den edozein deialditan. Praktika horiek jasota daude apirilaren 26ko 312/2019 Errege Dekretuaren bidez onartutako Azterlan Juridikoen Zentroa Erakunde Autonomoaren Estatutuaren 24. artikuluan.

Inolaz ere ezingo da zereginetan ari den ordezkari letradua kendu haren ordezkari praktiketako letradua izendatzeko.

2. Aurreko apartatuak xedatutakoarekin bat, ordezkari eta indartzeko zereginak egiten dituzten Justizia Administrazioako letraduek titularrek bezala jardungo dute, jardunaren zabalatasun osoan, eta dagokion gobernu-idazkaritzaren esanetara ariko dira.

Gobernu-idazkaritza horietako titularrek txosten bat egin beharko dute dena delakoek zereginak burutzean izan duten dedikazioari eta lortutako errendimenduari buruz, eta Azterlan Juridikoen Zentrori bidaliko dituzte han azter ditzaten.

3. Nolanahi ere, Azterlan Juridikoen Zentroak praktiken tutoretza egokia bermatuko du, eta gobernu-idazkaritzek dagokion laguntza emango dute.

4. Egiten duten lanari dagokion ordainsari osoa kobratuko dute ordezkariak egiten eta zerbitzua indartzeko zereginetan ari diren Justizia Administrazioako praktikaldiko letraduek, Justizia Ministerioak ordainduta.

Lehenengo xedapen gehigarria. *Epeak zabaltzea Erregistro Zibilaren eremuan.*

1. Ezkontzeko baimena ematen duten espedienteetan, baiesteko ebazpena eman bada, automatikoki emango da 2021eko ekainaren 20ra arteko epea (egun hori barne) ezkontzeko.

2. Halaber, espedienteren batean ez bada urtebeteko epea pasa harekin lotutako ediktuak, haien dispentsa edo Erregistro Zibilaren Legearen Araudiak—1958ko azaroaren 14ko Dekretuaren bidez onartua— 248. artikuluan jasotzen dituen ordezkari eginbideak argitaratu zirenetik, aurreko apartatua xedatutakoa aplikatuko da.

Bigarren xedapen gehigarria. *Sektore Publikoaren Araubide Juridikoaren urriaren 1eko 40/2015 Legearen 96.1.e) artikulua xedatzen duen desegiteko arrazoiaren aplikazioa etetea.*

Sektore Publikoaren Araubide Juridikoaren urriaren 1eko 40/2015 Legearen 96.1.e) eta 96.3 artikuluek xedatutakoa ez zaie aplikatuko 2020ko, 2021eko eta 2022ko ekitaldietan onartutako urteko kontuei.

Hirugarren xedapen gehigarria. *Zenbait xedapen jurisdikzio militarreara egokitzea.*

1. Ulertu behar da ezen lege honetako 21. artikuluan jaso den Justizia Administrazioiko letraduei buruzko aipamena justizia militarren eremuko idazkari errelatoreei buruzkoa ere badela.
2. Zigor-arloko prozesu militarrei ez zaie 14. artikulua xedatutakoa aplikatuko.

Laugarren xedapen gehigarria. *Fiskaltzaren komunikazio-egintzak.*

2020ko abenduaren 31ra arte (egun hori barne) ez da aplikatuko Prozedura Zibilaren urtarrilaren 7ko 1/2000 Legeak 151.2 artikuluan fiskaltzaren komunikazio-egintzekin loturik xedatutakoa. Egun horretara arte, hamar egun naturalekoa izango da artikulua horretan arautzen den epea.

Bosgarren xedapen gehigarria. *Unitate judizialak sortzea.*

Gobernuak autonomia-erkidegoekin justiziaren arloko negoziazioa egin ondoren, gutxienez ehun unitate judizial berri hiru urteko epean sor daitezten sustatuko du; horietako heren bat lehenengo urtean sortuko da planta judiziala COVID-19a eragindako krisialdiaren ondoriozko beharretara egokitzeko eta herritarren babes judizialerako eskubidearen eraginkortasuna bermatzeko. Horretarako, beharrezko eta nahikoa diren aurrekontu-partidak eta transferentziak zuzkituko ditu Gobernuak.

Seigarren xedapen gehigarria. *Osasungintzako agintaritzaren jarraibideak.*

Justizia Ministerioak edo Justizia Administrazioaren zerbitzurako baliabide materialen eta giza baliabideen eskumenak bereganatu dituzten autonomia-erkidegoek betearaziko dituzte hirugarren kapituluaren xedatutako antolamendu-neurriak, osasungintzako agintaritzak uneoro ematen dituen jarraibideekin bat, eta Botere Judizialaren Kontseilu Nagusiari eta Estatuko Fiskaltza Nagusiari kontsulta egin ondoren, bai eta elkargo profesionalak eta, hala dagokionean, sindikatuak entzun ondoren ere.

Zazpigarren xedapen gehigarria. *Kontratu-inguruabarren ezohiko aldaketa.*

Gobernuak Diputatuen Kongresuko eta Senatuko justizia batzordeei aurkeztuko die rebus sic stantibus araua betebeharren eta kontratuen araubide juridikoan sartzeko dauden legezko posibilitate eta aukerei buruzko analisia eta azterlana, zuzenbide konparatua daudenenak barne, gehienez ere hiru hileko epean. Azterlanaren barruan, kontratu pribatuekin loturik COVID-19aren ondoriozko krisialdiaren inpaktuari buruz eskura dauden datu aipagarrienak egongo dira

Lehenengo xedapen iragankorra. *Jarduketa prozesalen araubide iragankorra.*

1. Lege honen arauak aplikatuko dira bera indarrean jartzen den unetik aurrera egiten diren jarduketa prozesal guztietan, edozein dela haiek sortu zireneko prozesuaren abiarazte-eguna.
2. Hala ere, Justizia Administrazioaren esparruan COVID-19ari aurre egiteko neurri prozesalen eta antolaketa-neurrien apirilaren 28ko 16/2020 Legearen 3. artikulutik 5.era xedatutakoarekin bat abiarazitako jarduketa prozesalak artikulua horiek xedatutakoarekin bat arautuko dira bukaerara arte.

Bigarren xedapen iragankorra. *Antolamendu- eta teknologia-neurrien arloko aurreikuspenak.*

Lurralde nazional osoan aplikatuko dira lege honen III. kapituluaren jasotzen diren neurriak, 2021eko ekainaren 20ra arte (egun hori barne). Dena den, egun hori heldu eta osasun-krisialdiak bere horretan jarraitzen badu, lurralde nazional osoan aplikatuko dira aipatutako III. kapituluaren neurriak, harik eta Gobernuak, arrazoiak emanez, eskuragarri

dagoen ebidentzia zientifikoaren arabera, eta Alerta Sanitarioak eta Larrialdiak Koordinatzeko Zentroak txostena egin ondoren, COVID-19ak eragindako osasun-krisiaren amaiera deklaratu arte.

Xedapen indargabetzaile bakarra.

1. Indargabetuta geratzen da Justizia Administrazioaren esparruan COVID-19ari aurre egiteko neurri prozesalen eta antolaketa-neurrien apirilaren 28ko 16/2020 Errege Lege Dekretua.

2. COVID-19aren eragin ekonomiko eta sozialari aurre egiteko presako eta ezohiko neurrien martxoaren 17ko 8/2020 Errege Lege Dekretuaren 43. artikulua indargabetuta geratzen da.

Azken xedapenetako lehena. *Elkargo Profesionalei buruzko otsailaren 13ko 2/1974 Legea aldatzea.*

Beste xedapen gehigarri bat gehitzen zaio Elkargo Profesionalei buruzko otsailaren 13ko 2/1974 Legeari, seigarrena, eta honela geratzen da idatzita:

«Seigarren xedapen gehigarria. *Saio telematikoak.*

Sektore Publikoaren Araubide Juridikoaren urriaren 1eko 40/2015 Legeak 17. artikuluan xedatutakoarekin bat, elkargoetako kide anitzeko organo guztiak eratu ahalko dira, bilerak deitu eta egin, erabakiak hartu eta aktak bidali, aurrez aurre egonda nahiz urrutitik, salbu eta beren barne-erregelamenduan kontrakoa espresuki eta salbuespen gisa jasotzen bada. Nolanahi ere, dagozkion barne-araubideek edo estatutu-arauek garatu ahalko dituzte aurreikuspen horiek.»

Azken xedapenetako bigarrena. *Administrazioarekiko Auzien Jurisdikzioa arautzen duen uztailaren 13ko 29/1998 Legea aldatzea.*

Administrazioarekiko Auzien Jurisdikzioa arautzen duen uztailaren 13ko 29/1998 Legea aldatzen da, eta honela geratzen da idatzita:

Bat. Aldatu egiten da 8. artikulua 6. apartatua, eta honela geratzen da idatzita:

«6. Administrazioarekiko auzien epaitegiak arduratuko dira, halaber, bizilekuetan eta gainerako eraikin edo lekuetan sartzeko titularren baimenez, horietara sartzeko baimen hori beharrezkoa denean administrazio publikoaren egintzak nahitaez betearazteko beharrezkoa delako; hori ez da horrela izango esparru horretan eskumena duen Erakunde Publikoak adostutako adingabeak babesteko neurriak betearazten direnean.

Era berean, administrazioarekiko auzien epaitegiek baimenduko edo berretsiko dituzte osasungintzako agintaritzak osasun publikorako presakotzat eta beharrezkotzat jotzen dituen eta osasun legediarekin bat hartu dituen neurriak, baldin eta oinarritzko eskubideak mugatzea edo murriztea badakarte, eta, betiere, administrazio egintza singularrek jasotzen badituzte eta banaka identifikatutako partikular konkretu bati edo gehiagori eragiten badiete.

Gainera, administrazioarekiko auzien epaitegiak etxebizitza, lokal, lursail edo garraio-bide batean sartu edo ikuskatu ahal izateko baimenez arduratuko da, baldin eta Lehiaren Batzorde Nazionalak erabaki duen sartzeko edo ikuskatzea bada eta dena delako lekuan sartu eta hura ikuskatzeko titularraren baimena eskatuta titularrak eskaerari uko egiten badio edo uko egiteko arriskua badago.»

Bi. Aldatu egiten da 10. artikulua, eta honela geratzen da idatzita:

«10. artikulua. *Justizia auzitegi nagusietako administrazioarekiko auzien salen eskumenak.*

1. Justizia auzitegi nagusietako administrazioarekiko auzien salak ondorengo gaien inguruan aurkeztuko diren errekurtsuez arduratuko dira, auzialdi bakarrean:

a) Toki-erakundeen eta autonomia-erkidegoetako administrazioen egintzak, non eta haietaz arduratzeko eskumena ez zaien administrazioarekiko auzien epaitegiei esleitu.

b) Autonomia-erkidegoek eta toki-erakundeek emandako xedapen orokorrak.

c) Autonomia-erkidegoetako legebiltzarren gobernu-organismoek eta Kontu Auzitegiaren eta Herri Defendatzailearen pareko instituzio autonomikoen organismoek emandako egintza eta xedapenak, langileen, administrazioaren eta ondare-kudeaketaren arlokoak.

d) Eskualdeetako eta tokiko auzitegi ekonomiko administratiboaren egintzak eta ebazpenak, bide ekonomiko-administratiboari amaiera ematen diotenak.

e) Eskualdatutako tributuen arloan Auzitegi Ekonomiko Administrazio Zentralak emandako ebazpenak.

f) Probintzietako eta autonomia-erkidegoetako hauteskunde-batzordeen egintzak eta xedapenak, eta hauteskunde batzordeen erabakien kontrako hauteskunde-azietako errekurtsioak, hain zuzen, toki-korporazioetako hautetsiak izendatzearen eta lehendakariak hautatu eta izendatzearen inguruan hauteskunde-batzordeek hartutako erabakien aurka jarritako hauteskunde-azietako errekurtsioak, hauteskundearen legerian esandakoarekin bat.

g) Administrazio publikoen arteko hitzarmenak, horien eskumenak kasuan kasuko autonomia-erkidegoaren barruan gauzatzen direnean.

h) Biltzeko Eskubidea arautzen duen uztailaren 15eko 9/1983 Lege Organikoan aurreikusitako bilerak debekatzea edo horiek aldatzeko proposamena.

i) Estatuko administrazio orokorreko organismoen egintzak eta ebazpenak, baldin eta organo horien eskumena estatuko lurralde osokoa bada eta egintza edo ebazpena organikoki ministroa edo estatu-idazkaria baino beheragokoa denak emandakoa, eta arloa, berriz, langileria, jabego bereziak eta nahitaezko desjabetzeak.

j) Autonomia-erkidegoetan Lehia Defendatzeko Legea ezartzeko eskumena duten organismoen egintzak eta ebazpenak.

k) Sektore Publikoko Kontratuen urriaren 30eko 30/2007 Legeak 311. artikuluan aurreikusitako kontratazio-arloko errekurtsioak ebazteko eskumena duen organismoak emandako ebazpenak, autonomia-erkidegoen edo toki-korporazioen eskumen-eremuko kontratuei dagokienez.

l) Kontratuen inguruko Errekurtsioen Lurraldeko Administrazio Auzitegiek emandako ebazpenak.

m) Jurisdikzio-orden honen beste organo batzuen esku berariaz utzi ez diren gainontzeko administrazio-jarduera guztiak.

2. Bigarren mailan, administrazioarekiko auzien epaitegiek emandako epai eta egintzen kontra sustatutako apelazioez eta kasuan kasuko kexa-errekurtsuez arduratuko dira.

3. Orobat dagokie, lege honetan ezarritakoaren arabera, administrazioarekiko auzien epaitegien epai irmoen kontrako berrikuspen-errekurtsuez arduratzea.

4. Egoitza autonomia-erkidegoan duten administrazioarekiko auzien epaitegien arteko eskumen-arazoez ere arduratuko dira.

5. Doktrina bateratzeko 99. artikuluan aurreikusitako kasazio-errekurtsioaz arduratuko dira.

6. Era berean, 101. artikuluan aurreikusitako legearen intereseko kasazio-errekurtsioaz arduratuko dira.

7. 122 ter artikulua babesean egiten den baimen-eskaeraz arduratuko dira, eskaera hori kasuan kasuko autonomia-erkidegoan dagoen datuak babesteko agintaritzak egiten duenean.

8. Estatukoak ez diren osasun-agintaritzek, osasun publikorako premiazkotzat eta beharrezkotzat jotzen dituztelako, osasun-legeriarekin bat hartutako neurrien baimen edo berrespen judizialaz arduratuko dira, neurri horiek oinarrizko eskubideak mugatzea edo murriztea badakarte eta hartzaileak banaka identifikatuta ez badaude.»

Hiru. Aldatu egiten da 11. artikulua 1. apartatua, eta honela geratzen da idatzita:

«1. Auzitegi Nazionalako Administrazioarekiko Auzien Sala hauetaz arduratuko da, auzialdi bakarrean:

a) Ministro eta estatu-idazkariek, oro har eta, langileekin loturik, karrerako funtzionarioen zerbitzu-harremana sortzeari edo azkentzeari dagokionez, emandako xedapen orokorrak eta egintzak direla-eta aurkezten diren errekurtoez. Halaber, Defentsa Ministerioko edozein organo zentralak maila-igoerekin, eskalafoiko ordenarekin eta antzinatasunarekin eta destinoekin loturik emandako egintzen aurkako errekurtoez.

b) Ministroen eta estatu-idazkarien egintzen kontrako errekurtoez, baldin eta egintza horiek errekurto-bidean edo fiskalizazio- edo tutoretza-prozeduran zuzentzen badituzte nazio-lurralde osoan eskumena duten beste organo edo ente batzuen egintzak.

c) Administrazio publikoen arteko hitzarmenen inguruko errekurtoez, justizia-uzitegi nagusiei esleituak ez badira.

d) Ekonomia eta Ogasuneko ministroak eta Auzitegi Ekonomiko-administratibo Zentralak emandako egintza ekonomiko-administratiboez, 10.1.e) artikuluan xedaturikoa salbu.

e) Terrorismoa Finantzatzeko Jardueren Zaintzarako Batzordearen egintzen kontrako errekurtoez eta batzorde horren neurrien epeak luzatzeko baimenaz, Terrorismoaren Finantzaketa Aurrezaintzeko eta Blokeatzeko Legean aurreikusitakoaren arabera.

f) Kontratuen inguruko Errekurtsoen Administrazio Auzitegi Zentralak emandako ebazpenez, 10.1.k) artikuluan xedatutakoa salbu.

g) Ekainaren 18ko 11/2015 Legean aurreikusitakorekin bat Espainiako Bankuak, Balore Merkatuaren Batzorde Nazionalak eta BBOFak emandako egintzen kontrako errekurtoez; 11/2015 Legea, Kreditu-erakundeak eta inbertsio-zerbitzuetarako enpresak berreskuratu eta suntsiaraztearena.

h) Merkatuen eta Lehiaren Batzorde Nazionalak merkatu-batasuna babesteko xedez jarritako errekurtoez.

i) Estatuko osasun-agintaritzak, osasun publikorako premiazkotzat eta beharrezkotzat jotzen dituelako, osasun-legeriarekin bat hartutako neurrien baimen edo berrespen judizialaz, neurri horiek oinarrizko eskubideak mugatzea edo murriztea badakarte eta hartzaileak banaka identifikatuta ez badaude.»

Lau. 122 quater artikulua gehitzen da, eta honela dio:

«122 quater artikulua. *Osasun-agintaritzak osasun publikorako premiazkotzat eta beharrezkotzat jotzen dituen eta oinarrizko eskubideak mugatzea edo murriztea dakarten neurriak baimentzea edo judizialki berrestea.*

Lege honen 8.6 artikulua bigarren lerrokadan, 10.8 artikuluan eta 11.1.i) artikuluan aipatutako baimenak edo berrespenak izapidetzean, alderdi izango da ministerio fiskala. Izapidetze horrek lehentasuna izango du beti, eta hiru egun naturaleko epean ebatzi beharko da gehienez.»

Azken xedapenetako hirugarrena. *Aire Segurtasunaren uztailaren 7ko 21/2003 Legea aldatzea.*

Aire Segurtasunaren uztailaren 7ko 21/2003 Legea aldatzen da, eta honela geratzen da idatzita:

Bat. 45 bis artikulua gehitzen da, eta honela geratzen da idatzita:

«45 bis artikulua. *Bidaiariei laguntza eta konpentsazioa ematearekin lotutako arau-hausteak.*

1. Arau-hauste larria izango da Aire Segurtasunaren Estatuko Agentziak emandako erabakiak ez betetzea, bidaiariek Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2004ko otsailaren 11ko 261/2004 (EE) Erregelamenduaren babespean aurkeztu dituzten erreklamazioei dagokienez. Erregelamendu horrek arau komunak ezartzen ditu hegazkin-bidaiariei konpentsazioa eta laguntza emateko ontziratzea ukatzeagatik eta hegaldiak bertan behera uzteagatik edo atzerapen handiagatik.

2. Arau-hauste arina izango da Aire Segurtasunaren Estatuko Agentziak emandako erabakiak berandu edo gaizki betetzea, bidaiariek Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2004ko otsailaren 11ko 261/2004 (EE) Erregelamenduaren babespean aurkeztu dituzten erreklamazioei dagokienez. Erregelamendu horrek arau komunak ezartzen ditu hegazkin-bidaiariei konpentsazioa eta laguntza emateko ontziratzea ukatzeagatik eta hegaldiak bertan behera uzteagatik edo atzerapen handiagatik.

Ondore horietarako, betearazpena berantiarra edo akastuna dela joko da bete egin bada bidaiariak epaitegi eskudunaren aurrean betearazpen-demanda jarri eta gero. Epaitegi eskudunak Aire Segurtasunaren Estatuko Agentziari jakinaraziko dio betearazpena abiarazteko autoa, bai eta bidaiariari eta hegazkin-konpainiari ere.»

Bi. Letra bat gehitzen zaio 52. artikulua 1. apartatuari, i) letra, eta honela dio:

«i) Aire konpainiena, bidaiariei laguntza eta konpentsazioa ematearekin loturiko arau-hausteetan.»

Hiru. 62 bis artikulua gehitzen da, eta honela dio:

«62 bis artikulua. *Abiarazpenaren berezitasunak zehapen-prozedura batzuen kasuan.*

Lege honek jasotzen dituen arau-hausteak direla-eta Aire Segurtasunaren Estatuko Agentziak bideratzen dituen zehapen-prozedurak abiarazteko erabakia hartzearen ondoretarako, abiarazpena arrazoitzeko gertakaritzat hartu ahalko ditu lege honetako bigarren xedapen gehigarrian aurreikusten den prozeduran hartutako erabakiaren aurrekari direnak: Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2013ko maiatzaren 21eko 2013/11/EB Zuzentaraua, kontsumoaren arloko auzien ebazpen alternatiboari buruzkoa, Espainiako ordenamendu juridikoan txertatzen duen azaroaren 2ko 7/2017 Legea. Era berean, une horretan jasoko dira erabaki hori hartzeko egindako jarduketa guztiak, izapide gehigarriak egin behar izan gabe. Horrela abiarazten den zehapen-prozedura ez da bertan behera geldituko hegazkin-konpainiak erabakia aurkaratu duelako.»

Azken xedapenetako laugarrena. *Justizia Administrazioan informazioaren eta komunikazioaren teknologien erabilera arautzeko uztailaren 5eko 18/2011 Legea aldatzea.*

Justizia Administrazioan informazioaren eta komunikazioaren teknologien erabilera arautzeko uztailaren 5eko 18/2011 Legea aldatzen da, eta honela geratzen da idatzita:

Bat. Aldatu egiten da 4.2. artikulua f) letra, eta honela geratzen da idatzita:

«f) Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legeak 9. eta 10. artikuluetan xedatzen dituen identifikatzeko eta izenpetzeko sistemak erabiltzeko.»

Bi. Aldatu egiten da 6.2. artikulua d) letra, eta honela geratzen da idatzita:

«d) Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legeak 9. eta 10. artikuluetan xedatzen dituen identifikatzeko eta izenpetzeko sistemak erabiltzeko, baldin eta sistemak era unibokoan identifikatzen badu profesional gisa administrazioarekiko edozein izapide elektronikorako lege prozesalek xedatutakoarekin bat.

Horretarako, Kontseilu Nagusiak edo dagokion gorenak bulego judizialen eskura jarri beharko ditu interkonexiorako protokoloak eta sistemak, zeinek jardunean ari diren profesional elkargokideen erregistroa baliabide elektronikoen bidez sartzeara ahalbidetuko baitute; erregistroan profesionalaren datu hauek agertzen direla bermatuko da: elkargokide-zenbakia, helbide profesionala, telefono zenbakiak eta helbide elektronikoa. Elkargo profesionaleri buruzko otsailaren 13ko 2/1974 Legearen 10. artikuluan aurreikusita dago erregistro hori.»

Hiru. Bigarren paragrafoa gehitzen zaio 8 artikuluari, eta honela dio:

«Administrazio eskudunek bitarteko seguruak hornituko dituzte sistema horiek erabat irisgarri eta operatibo izan daitezten beharrezkoa izan gabe erabiltzaileak administrazio haien organo, bulego edo fiskaltzen egoitzetan aurrez aurre egotea.»

Lau. Aldatu egiten da 11. artikulua 2. apartatuko f) letra, eta honela geratzen da idatzita:

«f) Ediktu Taula Judizial Bakarrerako esteka, legezko xedapen baten ondorioz iragarki- edo ediktu-taulan jarri behar diren ebazpenak eta komunikazioak argitaratzeko eta kontsultatzeko bide gisa.»

Bost. Aldatu egiten da 35. artikulua, eta honela geratzen da idatzita:

«35. artikulua. *Ediktuen komunikazio elektronikoa*

Legezko xedapen baten ondorioz iragarki-taulan jarri behar diren ebazpenak eta komunikazioak, bai eta Estatuko Aldizkari Ofizialean, autonomia-erkidegokoan edo dagokion probintziako aldizkarian argitaratu behar diren prozesuko komunikazio-egintzak ere, Botere Judizialaren uztailaren 1eko 6/1985 Lege Organikoaren 236. artikuluan aurreikusitako Ediktu Judizialen Taula Bakarrean argitaratuko dira; ordena jurisdikzional guztietan izango da horrela.

Estatuko Aldizkari Ofizialaren Estatu Agentziak elektronikoki argitaratuko du Ediktu Judizialen Taula Bakarra, erregelamendu bidez ezarri bezala. Ondore horretarako, Estatuko Aldizkari Ofizialaren Estatu Agentziak epaitegi eta auzitegien esku jarriko du bidalketak egiteko eta kudeaketa telematikoak egiteko sistema automatizatuak, ediktuen argitalpena azkarra, zuzena eta fidela izango dela, bai eta organo igorlearen identifikazioa argia dela ere, bermatuko baitu.

Sei. Aldatu egiten da bosgarren xedapen gehigarria, eta honela geratzen da idatzita:

«Bosgarren xedapen gehigarria. *Baliabide eta tresna elektronikoak eta informazio-sistemak hornitzea.*

Justizia arloko administrazio eskudunen ardura izango da organo, bulego judicial eta fiskaltzak zeregina era eraginkorren garatzeko beharrezko eta nahiko diren baliabide eta tresna elektronikoz eta informazio-sistemaz hornitzea. Sistema horiek erabat irisgarri eta operatibo izango dira, ez da beharrezkoa izango erabiltzaileak administrazio horien organo, bulego edo fiskaltzen egoitzetan aurrez aurre egotea, eta deskonexio digitalerako eskubidea bermatzen duten barne-politikek diotena beteko da; eskubide hori jasotzen du urriaren 30eko 5/2015 Legegintzako Errege Dekretuaren bidez onartutako Enplegatu Publikoaren Oinarrizko Estatutuaren Legearen testu bateginak 14.j.bis eta 88. artikuluetan. Era berean, sistemak osatzen dituztenei prestakuntza emango zaie baliabide eta tresna horiek erabiltzen ikas dezaten.»

Zazpi. Beste xedapen gehigarri bat, hamahirugarrena, gehitzen da, eta honela dio:

«Hamahirugarren xedapen gehigarria. *Argitaratzeak Ediktu Judizialen Taula Bakarrean*

Prozesuko legeek xedatutakoa betez Ediktu Judizialen Taula Bakarrean egin behar diren argitaratzeak doakoak izango dira kasu guztietan, eta ezingo zaie kontraprestazio ekonomikoa aplikatu argitaratzeko eskatu dutenei.

Taulan egiten diren kontsultak ere doakoak izango dira, bai eta herritarrek alerta-sisteman egiten dituzten harpidetzak ere.»

Zortzi. Hirugarren xedapen iragankorra gehitzen da, eta honela dio:

«Hirugarren xedapen iragankorra. *Ediktu Judizialen Taula Bakarra.*

Ediktu Judizialen Taula Bakarrean ediktuak argitaratu beharra indarrean jarriko da 2021eko ekainaren 1ean, bai horretatik aurrera abiarazten diren prozedurei dagokienez, bai abiarazita daudenei dagokienez.»

Azken xedapenetako bosgarrena. *Erregistro Zibilaren uztailaren 21eko 20/2011 Legearen azken xedapenetako hamargarrena aldatzea.*

Erregistro Zibilaren uztailaren 21eko 20/2011 Legearen azken xedapenetako hamargarrena aldatzen da, eta honela geratzen da idatzita:

«Azken xedapenetako hamargarrena. *Indarrean jartzea.*

Lege hau 2021eko apirilaren 30ean jarriko da indarrean, xedapen eta artikulua hauek izan ezik: zazpigarren eta zortzigarren xedapen gehigarriak eta azken xedapenetako hirugarrena eta seigarrena, horiek Estatuko Aldizkari Ofizialean argitaratu eta hurrengo egunean jarriko baitira indarrean; eta 49.2 eta 53. artikulua, horiek 2017ko ekainaren 30ean jarriko baitira indarrean.

Aurreko paragrafoan xedatutakoa ulertzen da ezertan eragotzi gabe 2015eko urriaren 15ean indarrean jartzea artikulua hauek: 44., 45., 46., 47., 49.1 eta 49.4, 64., 66. eta 67.3 artikulua eta bederatzigarren xedapen gehigarria —Justizia Administrazioaren eta Erregistro Zibilaren eremuan administrazioa erreformatzeko neurrien uztailaren 13ko 19/2015 Legearen 2. artikuluan emandako idazkuntzan—.

Erregistro Zibilaren bulego kontsularren kasuan, legea indarrean jarriko da 2020ko urriaren 1ean, eta era progresiboan aplikatuko da zazpigarren xedapen iragankorrak eta horretarako ezartzen diren erregelamendu-xedapenek jasotzen dutenarekin bat.

Lege hau osorik indarrean jarri arte, Gobernuak erregistro zibilen antolamenduari eta funtzionamenduari eragiten dioten neurriak hartuko ditu, eta behar diren arauak aldatuko.»

Azken xedapenetako seigarrena. *Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2013ko maiatzaren 21eko 2013/11/EB Zuzentaraua Espainiako ordenamendu juridikoan txertatzen duen azaroaren 2ko 7/2017 Legea aldatzea. Zuzentarau hori kontsumo-arloko auzien ebazpen alternatiboari buruzkoa da.*

Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2013ko maiatzaren 21eko 2013/11/EB Zuzentaraua —kontsumo-arloko auzien ebazpen alternatiboari buruzkoa— Espainiako ordenamendu juridikoan txertatzen duen azaroaren 2ko 7/2017 Legearen bigarren xedapen gehigarria honela geratzen da idatzita:

«Bigarren xedapen gehigarria. *Ebazpen alternatiborako entitateak aireko garraioaren erabiltzaileen babesaren eremuan.*

1. Europar Batasunean aireko garraioaren erabiltzaileen babesari buruz dauden erregelamenduak aplikatu behar zaizkien auzien ebazpen alternatiborako, entitate bakarra egiaztatuko da, eta Europako Batzordeari jakinaraziko zaio; entitate hori arduratuko da, xedapen honetan jasotakoarekin bat, bidaiariekin zerikusia duten auziez, bidaiari horiek kontsumitzaile izaera izan edo ez, eta konpainia Europar Batasunean kokatua egon edo handik kanpo.

Mota horretako auziez arduratu ahal izango dira, halaber, 6.2 artikuluan aipatutako entitateak, sektore ekonomik guztietako kontsumo-errekamazioei ematen badiete estaldura, lege honen aplikazioaren eremuan, betiere, bi alderdiak euren borondatez jartzen badira halako prozeduren mende.

2. Aurreko apartatuko lehenengo paragrafoan aipatutako auzien ebazpen alternatiborako prozedura Garraioetako, Mugikortasuneko eta Hiri Agendako ministroaren agindu baten bidez arautuko da. Hegazkin-konpainiek nahitaez onartu beharko dute prozedura hori, eta emaitza loteslea izango da haientzat.

3. Egiaztatutako entitateak amaiera emango dio aurreko prozedurari arrazoitutako erabakiaren bidez. Lege honek 20. artikuluan xedatzen duen epea amaitu bada eta erabakia jakinarazi ez bada, bidaiariak egin duen erreklamazioa ezetsi dela ulertu beharko da.

Baldin eta bidaiaria ados ez badago prozeduraren funtzionamenduari edo izapidetzearekin, atzera egin ahal du prozeduraren edozein unetan; prozedura abiarazten denean, egiaztatutako entitateak hortaz ohartaraziko dio.

Hegazkin-konpainiak uste badu egiaztatutako entitateak hartutako erabakia zuzenbidearekin bat ez datorrela, merkataritza-arloko epaitegi eskudunaren aurrean aurkaratu ahal du. Egiaztatutako entitatearen erabakia ez da loteslea izango bidaiariarentzat; beraz, ez da eragozpenik egongo bidaiariak zibilaren arloko egintzak buru ahal izateko hegazkin-konpainiaren aurrean.

Hegazkin-konpainiak demanda formulatuz aurkaratu ahal du erabakia, bi hilabeteko epean erabakia jakinarazten zaionetik; zuzenketa edo argibideak eskatu badira, berriz, epe hori hasiko da kontaktzen eskaera horri emandako erantzuna jakinarazten denetik, edo eskaera hori egin zenetik hamar egun pasatu badira eta epe horretan berariazko erantzuna eman ez bada, hamar egun horiek pasatu diren momentutik aurrera kontaktuta. Demanda hitzezko judizioaren bidetik izapidetuko da.

Bidaiariak aukera izango du prozedura judizialean ez agertzeko; horrela eginez gero, egiaztatutako entitatearen erabakiari men egiten diola ulertuko da. Prozedura honetan kostuak ez zaizkio inoiz ezarriko bidaiariari.

4. Ezertan eragotzi gabe egiaztatutako entitateak hartutako erabakia aurkaratzeko hegazkin-konpainiak duen eskubidea, hilabetea pasa bada erabakia hartu zenetik, bidaiariak eskatu ahal du hura betearaz dadila merkataritza-arloko epaitegi eskudunaren aurrean. Ondore horietarako, egiaztatutako entitatearen behar

bezala ziurtatutako erabakia titulu betearazle ez-judizial gisa hartuko da, Prozedura Zibilarren urtarrilaren 7ko 1/2000 Legeak 517. artikulua 2. apartatuko 9. zenbakian xedatutakoarekin bat.

Nolanahi ere, haize-konpainiak bete izanaren ziurtagiria bidaliko dio egiaztatutako entitateari erabakia bete bezain pronto, bai eta adieraziko epaitegi eskudunaren aurrean erabakia aurkaratu duen ere.

5. Bigarren apartatuan aipatutako agindua indarrean jarri arte, Aire Segurtasunerako Estatu Agentziak bere funtzionamendua eta prozedura egokitu beharko ditu lege honetan ezarritakora aireko garraioaren erabiltzaileen eskubideen arloko auzien ebazpen alternatiborako entitate gisa egiaztatua izan ahal izateko.»

Azken xedapenetako zazpigarrena *Sektore Publikoko Kontratuen azaroaren 8ko 9/2017 Legea aldatzea. Lege horrek Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2014ko otsailaren 26ko 2014/23/EB eta 2014/24/EB zuzentarauen transposizioa egiten du Espainiako ordenamendu juridikora.*

Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2014ko otsailaren 26ko 2014/23/EB eta 2014/24/EB zuzentarauen transposizioa Espainiako ordenamendu juridikora egiten duen Sektore Publikoko Kontratuen azaroaren 8ko 9/2017 Legearen 159.4. artikulua d) eta f) letrak aldatzen dira, eta honela geratzen dira idatzita:

«d) Eskaintza gutun-azal edo fitxategi elektronikoa bakarrean aurkeztuko da prozedurak balio-irizki baten arabera kuantifikatzen diren adjudikazio-irizpideak jasotzen ez dituenean. Hala ez bada, eskaintza bi gutun-azaletan edo bi artxibo elektronikotan aurkeztuko da.

Proposamena jasotzen duten gutun-azalak edo artxibo elektronikoak 145. artikuluan ezarritakoaren arabera dagokien hurrenkeran irekiko dira, baldintza-agirietan ezarritako adjudikazio-irizpideak baloratzeko aplikatzeko den metodoaren arabera. Lege honen 326. artikulua 6. apartatuak aipatzen duen kontratazio-mahaiak irekiko ditu.»

«f) Nolanahi ere, aurreko letrak aipatzen duen balorazioak eginda egon beharko du formulen aplikazio hutsez kuantifikatzekoak diren irizpideen bitartez ebaluatu beharreko eskaintzaren gutun-azala edo artxibo elektronikoa irekitzeko ekitaldia baino lehen.

Gutun-azala edo artxibo elektronikoa ireki ondoren, saio berean, mahaiak honako hauek egingo ditu:

1.a Kasua bada, baldintza-agiriko baldintzak betetzen ez dituzten eskaintzak baztertu eta, ondoren, eskaintzak ebaluatu eta sailkatzea.

2.a Puntuazio onena duen hautagaiaren aldeko adjudikazio-proposamena egitea.

3.a Lizitatuzaileen eta Enpresa Sailkatuen Erregistro Ofizialean egiaztatzea enpresa behar bezala eratuta dagoela, proposamenaren sinatzaileak eskaintza egiteko behar adinako boterea duela eta kaudimen ekonomiko, finantzario eta tekniko duela, edo, bestela, dagokion sailkapena duela, eta kontratatzeko inongo debekurik ez duela.

4.a Puntuazio onena lortu duen enpresari komunikazio elektronikoaren bitartez eskatzea behin betiko bermea eman dezan, eta aurkez ditzan 75.2 artikuluan aipatzen den konpromisoa, batetik, eta kontratua egikaritzeko 76.2 artikuluan ezarritakoari jarraituz hitzeman dituen bitartekoak egiazki badituela egiaztatzeko dokumentazioa, bestetik; eta hori guztia, komunikazioa igortzen denetik 7 egun balioduneko epean egingo du.

Baldin eta susmatzen bada puntuazio onena lortu duen lizitatuzailearen eskaintza nabarmenki baxua dela 149. artikuluan aurreikusitako kasuak gertatzen direlako, mahaiak, aurreko 1. eta 2. puntuetako jarduketak eginda, artikulua horretako

prozedurari jarraituko dio, baina lizitatuak bere eskaintza justifikatzeko gehieneko epea ez da izango 5 egun baliodunetik gorakoa, dagokion komunikazioa igortzen denetik kontatzen hasita.

Behin betiko bermea aurkeztuta eta aginduzkoa den kasuetan Kontu-hartzailetzak gastu-konpromisoa fiskalizatu ondoren Aurrekontu Orokorrei buruzko azaroaren 26ko 47/2003 Legean ezarritako baldintzetan, kontratua adjudikatuko zaio adjudikaziodun gisa proposatu den lizitatuari, 5 egunetik gorakoa ez den epe batean, eta, behin hura adjudikatuta, kontratua formalizatu egingo da.

Baldin eta horretarako emandako epean adjudikaziodun gisa proposatutako hautagaiak ez badu behin betiko bermerik aurkeztu, puntuazioan hurrengoa den hautagaiaren aldeko esleipen-proposamena egingo da, eta dagokion epea emango zaio aipatutako behin betiko bermea jartzeko.

Enpresaburuak, Lizitatuaren Erregistroan inskribatuta ez dagoen beste edozein dokumentazio aurkeztu behar badu, dokumentazio hori behin betiko bermea aurkezteko ezarritako 7 egun balioduneko epean aurkeztu beharko du.»

Azken xedapenetako zortzigarrena. COVID-19ari aurre egiteko, gizarte- eta ekonomia-arloan presako neurri osagarriak ezartzen dituen martxoaren 31ko 11/2020 Errege Lege Dekretua aldatzea.

COVID-19ari aurre egiteko, gizarte- eta ekonomia-arloan presako neurri osagarriak ezartzen dituen martxoaren 31ko 11/2020 Errege Lege Dekretua aldatzen da, eta honela geratzen da idatzita:

Bat. Honela geratzen da idatzita 4. artikulua 1. apartatua:

«1. Baldin eta Hiri Errentamenduen azaroaren 24ko 29/1994 Legearen babesean sinatutako ohiko etxebizitzaren kontratu baten errentaria kalteberatasun ekonomikoko egoeran badago, hurrengo artikuluan zehazten den bezala, eta errentatzailea etxebizitzaren arloko enpresa edo erakunde publikoa edo edukitzaile handia bada (hau da, hamar hiri-ondasun higiezin baino gehiagoren titularra, garajeak eta trastelekuak zenbatu gabe, edo 1.500 m²-tik gora eraikita dauden higiezin baten titularra den pertsona fisikoa edo juridikoa), errentariak errentatzaileari eskatu ahal izango dio, 2020ko irailaren 30era arte, errentaren ordainketa aldi batez eta aparteko neurri gisa geroratzeko; nolana ere, hori eskatzeko, ezinbestekoa izango da bi alderdiak lehendik adostuta ez edukitzea ordainketa geroratzeko edo ordaindu beharreko kopuru osoa edo zati bat barkatzea.»

Bi. Honela geratzen da idatzita 8. artikulua 1. apartatua:

«1. Hiri Errentamenduen azaroaren 24ko 29/1994 Legearen babesean sinatutako ohiko etxebizitzaren kontratu baten errentariak, 5. artikuluan zehazten den kalteberatasun ekonomikoko egoeran izanez gero, errentatzaileari eskatu ahal izango dio, baldin eta 4. artikuluan aipatzen direnetakoa ez bada, errege lege-dekretu hau indarrean jartzen denetik hiru hilabete pasatu baino lehen, eta hurrengo 2 eta 4 bitarteko apartatuetan arautzen den bezala, errentaren ordainketa aldi batez eta aparteko neurri gisa geroratzeko. Ezinbestekoa da ordainketaren geroratzeko edo barkamen osoa edo partziala alde aurretik bi alderdien artean adostuta ez egotea.»

Hiru. Honela geratzen da idatzita 9 artikulua:

«9. artikulua. COVID-19aren hedapenaren ondorioz kalteberatasun sozial eta ekonomikoko egoeran dauden errentarien finantzaketa Estatuaren kontura estaltzeko abal-lerroa onartzea.

1. COVID-19aren hedapenaren ondorioz kalteberatasun sozial eta ekonomikoko egoeran dauden familiei etxebizitza-gastuei aurre egiteko finantza-estaldura emateko asmoarekin, baimena ematen zaio Garraioetako,

Mugikortasuneko eta Hiri Agendako Ministerioari hamalau urtez, gehienez, Estatuak guztiz babestutako abal-lerro bat garatzeko Kreditu Ofizialeko Institutuarekin egindako hitzarmen baten bitartez; lerro horretaz baliatuz, kreditu-erakundeek finantzaketa-laguntza iragankorrak, mailegu gisa, eman ahal izango dizkiete aipatutako kalteberatasuna duten pertsoneri, eta haiek sei urtera arteko epealdia edukiko dute itzultzeko (aparteko kasuetan, lau urtez luzatu ahal izango da). Laguntza horiek ez diete inolako gasturik eta interesik sortuko eskatzaileei.

2. Finantzaketa-laguntza iragankorrak finalistak izango dira, hau da, ohiko etxebizitzaren errentamendu-errenta ordaintzeko erabili beharko dira. Gehienez sei hileko errenta estaliko dute.

3. Finantzaketa-laguntza iragankor horiek COVID-19aren hedapenaren ondorioz kalteberak diren errentari guztiek eskuratu ahal izango dituzte, baldin eta Garraioetako, Mugikortasuneko eta Hiri Agendako Ministerioaren agindu baten bidez zehaztuko diren irizpideak eta betekizunak betetzen badituzte. Agindu horretan, errege lege-dekretu honen 5. artikuluan zehazten diren egoerak arautuko dira, gutxienez. Agindu horrek ez du ondoren arau-garapenik beharko aplikatzeko, eta Europar Batasunaren estatu-laguntzen arloko arautegia bete behar du nahitaez.

4. Aurreko apartatuan aipatutako Garraioetako, Mugikortasuneko eta Hiri Agendako Ministerioaren Aginduak ez du beharko Dirulaguntzen azaroaren 17ko 38/2003 Legearen 10.2 artikuluan aurreikusitako Ministro Kontseiluaren baimena.

5. Finantzaketa-laguntza iragankorren aplikazioaren ondoretarako, ezartzen da ezen ezarritako arauekin bat kreditu-erakundeek mailegua ematen duten egintza berean maileguak eragindako gastu eta interesentzako dirulaguntza eman dela ulertuko dela; beraz, Garraioetako, Mugikortasuneko eta Hiri Agendako Ministerioak ez du dirulaguntza hori eman izanaren ebazpena eman beharko. Interes motako dirulaguntzen modalitateko laguntzak Garraioetako, Mugikortasuneko eta Hiri Agendako Ministerioak finantzatuko ditu 17.09.261N.481 «COVID-19aren ondorioz kalteberatasun egoeran dauden errentariei eman zaizkien maileguez eragindako gastuen eta interesen hobaria» aurrekontu-aplikazioaren kargura. Kreditu hori zabalgarria izango da. Garraioetako, Mugikortasuneko eta Hiri Agendako Ministerioak ex post egiaztatuko du onuradunek betetzen dituztela dirulaguntza jasotzeko betekizunak, dagokion araudiarekin bat.

6. Garraioetako, Mugikortasuneko eta Hiri Agendako Ministerioaren eta Kreditu Ofizialeko Institutuaren arteko hitzarmenari —1. apartatuan aipatua— eta ministerio horren aginduari —aurreko apartatueta aipatua— ez zaie aplikatuko 2019ko abenduaren 27ko Ministro Kontseiluaren erabakiak seigarren eta zazpigarren apartatueta xedatutakoa; erabaki horren bidez, 2019an indarrean zeuden Estatuaren Aurrekontu Orokorren 2020ko luzapena aplikatzeko irizpideak ezarri ziren. Horrez gain, COVID-19aren eragin ekonomiko eta sozialari aurre egiteko presako eta ezohiko neurrien martxoaren 17ko 8/2020 Errege Lege Dekretuak 39. artikuluan aurreikusitako araubide berezia aplikatu beharko zaito hitzarmenari.»

Lau. Hogeigarren xedapen gehigarriaren 1. apartatuko c) letra honela geratzen da idatzita:

«c) Norberaren konturatuko langile izanez gero, aurretik Gizarte Segurantzaren araubide batean edo haren ordezkoko mutualismo-araubide batean horrela egon bada eta COVID-19aren ondoriozko osasun-krisiaren eraginez jarduera utzi badu edo, jarduera utzi behar izan gabe, pentsio-plana eskuratzeko eskatu aurreko hilabete naturaleko fakturazioan gutxienez ehuneko 75eko murrizketa izan bada, aurreko seihileko naturalaren batezbestekoarekin alderatuta; baina ezin izango da hurrengo paragrafoetan jasotako bi egoeretako batean egon.

Bai urtaroko ekoizpenetako nekazaritzako langile autonomo izanez gero, Norberaren Konturako Nekazaritzako Langileentzako Sistema Berezian egon bada, bai arrantza-, itsaski-ekoizpenetako edo Itsasoko Langileen Araubide Berezian dauden urtaroko produktu espezifikotako ekoizpenetako langile izanez gero,

prestazioa eskatu aurreko ekoizpen-kanpainako hilabeteetako batezbesteko fakturazioan gutxienez ehuneko 75eko murrizketa izan bada, aurreko urteko kanpainaren hilabete berdinarekin alderatuta.

Langile autonomia izanez gero, EJSN 2009ko 5912, 5915, 5916, 5920 kodeetan, eta 9001 eta 9004 kodeen artekoetan, biak barne, lan egiten duena, eta, jarduera utzi behar izan gabe ere, prestazioa eskatu aurreko hilabete naturalaren fakturazioan gutxienez ehuneko 75eko murrizketa izan bada, aurreko hamabi hilabeteetan egindakoarekin alderatuta.»

Azken xedapenetako bederatzigarrena. *Ekonomiaren eta enpleguaren aldeko premiazko neurri osagarrien apirilaren 21eko 15/2020 Errege Lege Dekretua aldatzea.*

Ekonomiaren eta enpleguaren aldeko premiazko neurri osagarrien apirilaren 21eko 15/2020 Errege Lege Dekretua aldatzen da, eta honela geratzen da idatzita.

Bat. Honela geratzen da idatzita 23.2. artikulua c) letra:

«c) Baldin eta langilea norberaren konturatuko langilea bada eta alde zuzenetik Gizarte Segurantzako araubide batean norberaren konturako langile gisa sartuta egon bada, edo haren ordezkari mutualismo-araubide batean, eta, Gobernuak deklaratuak alarma-egoeraren ondorioz, jarduera utzi behar izan badu edo fakturazioan ehuneko 75eko murrizketa izan badu, hauek aurkeztuko ditu, dagokionaren arabera:

1.a Zerga Administrazioako Estatu Agentziak edo, hala badagokio, autonomia-erkidegoko organo eskudunak emandako ziurtagiria, interesdunak deklaratuak jarduera uzteko deklarazioan oinarrituta; edo

2.a fakturazioaren murrizketa justifikatzen duen kontabilitate-informazioa, martxoaren 17ko 8/2020 Errege Lege Dekretuaren 17.10 artikulua ezarri bezala; hau da, alarma-egoeraren deklarazioak eragindako norberaren konturako langileek jarduera uzteagatik aparteko prestazioa eskatzean fakturazioaren murrizketa justifikatzeko aurkeztu behar duten bezala. Baldin eta norberaren kontura ari den langileak ez baditu jarduera-bolumena egiaztatzeko liburuak eraman behar, zuzenbidean onartzen den edozein frogabideren bidez egiaztatu beharko du fakturazioaren murrizketa.»

Bi. Honela geratzen da idatzita 23.3.1. artikulua c) letra:

«c) Norberaren konturako langileen kasuan, alde zuzenetik Gizarte Segurantzaren araubide batean norberaren konturako langile gisa sartuta egon badira, edo haren ordezkari mutualismo-araubide batean, eta Gobernuak ezarritako alarma-egoeraren ondorioz jarduera utzi badute edo fakturazioan ehuneko 75eko murrizketa izan badute: jarduera uztearen ondorioz jaso ez diren diru-sarrera garbiak, gehieneko zenbaketa-aldi gisa hartuta alarma-egoeraren indarraldia eta hilabete gehigarri bat; halakoak, betiere, aurreko ekitaldiari dagokion pertsona fisikoen errentaren gaineko zergaren aurreko ekitaldiko aitortza aurkeztuz justifikatuko dira, eta, hala badagokio, pertsona fisikoen errentaren gaineko zergaren ordainketa zatikatua eta azken hiruhilekoari dagozkion balio erantsiaren gaineko zergaren autolikidazioak aurkeztuz.»

Azken xedapenetako hamargarrena. *Eskumen-titulua.*

Lege hau Espainiako Konstituzioaren 149. artikulua 1. apartatuko 1., 5., 6., 8., 13. eta 18. zenbakietan xedatutakoaren babesean eman da, zeinek eskumen eskusioa ematen baitote Estuari arlo hauetan: konstituzio eskubideak baliatzean eta betebeharrak betetzean espainiar guztien arteko berdintasuna bermatzen duten oinarritzko baldintzen arauak; Justizia administrazioa; merkataritza-legegintza; legegintza prozesala, ezertan

eragotzi gabe autonomia-erkidegoen zuzenbide substantiboaren berezitasunak direla-eta orden horretan beharrezkoak diren espezialitateak; legegintza zibila, ezertan eragotzi gabe autonomia-erkidegoek, zuzenbide zibila, forala eta bereziak gorde, aldatu eta garatzea, horrelakoak dauden kasuetan, bereziki, erregistro eta tresna publikoen antolamenduaren arloan; jarduera ekonomikoaren oinarriak eta haren planifikazioaren koordinazioa; eta administrazio kontratu eta emakidei buruzko oinarritzko legegintza.

Azken xedapenetako hamaikagarrena. *Notarioek eta erregistratzaileek telematikoki esku-hartzea.*

Gobernuak, ahalik eta eperik motzenez, bederatzi hilabetekoa baino txikiagoa izango baita, Gorte Nagusiei bidaliko die lege-proiektu bat, Notariotzaren Kontseilu Nagusia eta Espainiako Erregistratzaileen Elkargoa entzun ondoren, notarioen eta erregistratzaileen esku-hartze telematikoa antolatzeko, haien zerbitzuak eman ahal ditzaten aurrez aurre egon behar izan gabe.

Azken xedapenetako hamabigarrena. *Jarduketa telematikoak.*

Justizia Administrazioaren zerbitzura dauden baliabide materialen eta pertsonalen gaineko eskumenak bereganatu dituzten autonomia-erkidegoekin, Botere Judizialaren Kontseilu Nagusiarekin eta Estatuko Fiskaltza Nagusiarekin elkarlanean ariko da Gobernuak eta Gorte Nagusietara bidaliko du prozesuko egintzen gauzatze telematikoa arautzeko lege-proiektua, zeinetan ordenamendu juridikoan jasotako prozesu-bermeak eta alderdien defentsarako eskubidea aintzat hartuko diren uneoro.

Azken xedapenetako hamahirugarrena. *Indarrean jartzea.*

Lege hau «Estatuko Aldizkari Ofizialean» argitaratu eta hurrengo egunean jarriko da indarrean.

Beraz,
Lege hau bete eta betearaz dezatela agintzen diet espainiar guztiei, partikularrei zein agintariei.

Madriren, 2020ko irailaren 18an.

FELIPE e.

Gobernuko presidentea,
PEDRO SÁNCHEZ PÉREZ-CASTEJÓN